

# IDATZ & MINTZ

## Literatur atalen sorta

# 42

Aurkibidea: Adolfo Arejita: MARKINAKO IPUIN ETA KONTAERAK ROLLO HIZKUNTZALARIAK MARKINAN 1920KO HAMARKADAN BATURI-KOAK. **3**. Miren Agur Meabe: ESPORATEKA MAGIKOA (IRAULTZAREN KRONIKA). **15**. Lourdes Unzueta: BISITAN **18**. Jabier Kalzakorta: HIRU SASIBALADA BAXENABARTAR. **23**. Xabier Zalbide: ATZAMAR BI FALTA ZITUEN. **39**. Matxalen Antxustegi-Etxarte: EURIA... **41**. Jon Arego: RUIZ DE AZUA ZABALGOGASKOA, ANDONI, *OGOÑOPE* (1904-1974). **42**. LIBURUAK. **46**.


ARGITARATZAILEA  
Labayru Ikastegia  
Literatura saila

IDAZKARITZA BATZORDEA

Asier Astigarraga  
Jesus A. Etxezarraga  
Jabier Kalzakorta  
Miren Agur Meabe  
Lourdes Unzueta  
Andres Urrutia

ARDURADUNA  
Adolfo Arejita

DISEINU EDITORIALA  
Ikeder, S. L.



Argitalpen hau Bilbon irarri da 2006ko uztailean, Baster S. L. L. etxean, eta Ikur Fotokonposaketak taitu dau Times eta Bodoni letra moldeez. Irudiak «Revista pintoresca de las Provincias Vascongadas» eta «Meneer Focus als Meid-alleen» liburuetatik atera izan dira.



LABAYRU IKASTEGIA  
Aretxabaleta, 1-1ngoia  
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58  
Posta elektronikoa:  
labayru@labayru.org  
48010 BILBAO



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizuntza Politikako Saibunordetza  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Ministerio de Política Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

bbk<sup>2</sup>

# Markinako Ipuin eta Kontaerak Rollo hizkuntzalariak Markinan 1920ko hamarkadan baturikoak

Aldizkariaren ale honetara, William Rollo deritxan hizkuntzalari britaniar batek Markinan baturiko ipuin eta kontaera batzuk ekarteari ondo eretxi deusagu, gure euskera idatziak ahozkoagaz jagon beharreko lokarri estua sendotu gurarik.

Liburu bitxi baizen ezezagun bat argitara ekarri euskun ikertzaile zoli honek, irakasle egoan Leidengo (Holanda) Unibersidadetik, eta ingelesez idatzita. Beronen izenburua: *The Basque Dialect of Marquina*.<sup>1</sup> Udaldi bi egin ei zituan Markina parajea, eta Barinagako etxe baten egon ei zan ostatuz. Hangoa izan ei eban barriemoilerik onena be, haren azterrenai jarraitu deuten Jabier Kalzakortak aitzen emon deuskunez.

Gaur egun hainbeste ugaritu diran dialektologia-lanen aurrelaria izan zala esan daiteke, huts egiteko bildur handi barik; benetan be ikertzaile goiztiarra arlo honetan. XIX. mendean Luis Luziano Bonapartek eta honen laguntzaileek erabili eben baino orratz eta hari meheagoaz josi zituan Markinaldeko ahozko berbakereari egoko-

zan ahoskera, morfologia, lexiko eta sintaxi zehaztasunak.

Baina literatura-aldizkari baten orrietan, gure arloa ez da, hatan be, azterlan horren jakintza edo metodologia balioez jardutea; ezpada liburu horren atze partean datozan ahotik harako testuek erakarri dabe gure oharmena, eta eurok bizkai euskera landuan transkribaturik eskeintzea baino ez da gure asmo apala.

*Etnotesto* izena emon ohi jaken ahotik idatzira eroaniko testuok benetan be bitxiak eta baliotsuak dira, hiru edo lau alderditatik begiratuta gitxienez. Batetik, Markina eta inguruetako berbetea zehatz, dan-dan moduan erakusten dabelako; bigarren, hizkuntzaren aldetik begiratuta hizkera aberatsaren jabe diralako; eta hirugarren, literaturaren aldetik be, ipuin eta kontaerok ondo josiak eta koherentzia handikoak diralako, narratze-jarduna egokiro garatzen dabela; eta azkenez, ipuin-kontaeron edukia bera, gaiaren aldetik, baliotsua begitantzen jakulako.

Mendearen hogeiko hamarkada horretako markinarren berbete-modua islatzen dabe testuok, eta beharbada belaunaldi bat

<sup>1</sup> Amsterdam, 1925, H. J. Paris.

aurreragokoa, zerren Rollo horri ipuin-kontuok esan eutsazan lekukoak edo laguntzaileak berak aitzen lez emoten dau –hogeiko hamarkadaren lehen urteetan izango zan hori– lehendik gaurrera berbakerea apurren bat aldatu egin dala. Esatari horrek edadekoa izan behar eban, nonbaiten be.

Rollok jasoriko ipuinak –ez bestelako kontaerak– hondino hontsu Markina-Xemeingo Udalak Herri Bibliotekeagaz batera argitaratu dauen liburuskua kuaderno antzeko baten atera ditue beste batzukaz batera. Beronen izenburua, *Markina-Xemeingo ipuin zaharrak* (2006). Bertsino transkribatua eta bizkaiera landukoaren arduraduna, Iratxe Lasa, hontsura arte geure ikasle eta lankide izana. Izan be, bertsino bi eskintzen dira kuadernoan: jatorrizkoa eta bizkaiera landukoa. Badira horraitino akatsen batzuk hor-hemen, testua gaurkotzerakoan irristatu diranak –gure honetan be seguru nago faltako ez dirana, borondaterik onenaz be ustabedarra lez erneten dira holakoak eta–, baina lan eginak beti dauka arrisku hori, eta akatsak gorabehera aurrera egitea beti da hoba, geldian besoak auma dirala egotea baino.

*Idatz & Mintz*-en irakurleentzat be aju-tuak diralakoan ekarri gura izan ditugu hona, ez bakarrik ipuinak, baita osterantzeko kontaerok be barru dirala; hau da, Rolloren liburuan izenburutzat honangoak dituenak: *Markiñeko Errixe, Eskontse bat eta San Migel Arretxiñakue*.

Testuok –nire begitantzinoa hori da behinik behin– ez dira berez etnotesto garbiak; zerbait orraztuak dirudie. Egia da Markina aldeko berbakune garbi-garbian idatziak

dagozala, baina estiloaren aldetik ezagun dabe hareantxo landurik datozala. Orduan ez erabilen, gaurko lez, magnetofonorik berbaz esanak gordeteko: ahotik belarrira eta lumaz paperera; horreek ziran bitarteko tresnak.

Zein izan zan erabili eben transmisino-mekanismoa ez dago garbi esaterik. Gure hizkuntzalariak laguntzaile bikaina aurkitu ei eban bertako abade bategan, J. Kalza-kortak ikertu dauenez. Seguruena, beraz, kontaera-pasadizuon idazketa honek bere gain hartzea izango zan, eta ikertzaileak beharbada testo hari azken orraztua emotea.

Etnotesto garbiak ez dirala esan dogu, ahotik harako berbaldiek ohi daben baino zehaztasun handiagoaz idatziak dirudiela: berba edo esaldirik nekez esaten da birritan; alperreko edo betegarri dan berbarik be ez da agiri; ezta hotsitz arrarorik edota ahoz ohi diran *muletilla* horreetarikorik be. Zelanbait esanda, ahoz jasoriko testua apurren bat galbahetua eta landua dago estiloaren aldetik. Beste zertzelada hau gehitu geinke. Aldi beretsuan eta apur bat lehenago Azkuek eta beste batzuk batu ebezan ahotik harako testuak baino zehaztasun gehiagoz jasoak dirala Rolloren honeek; hareek baino landu-itxura gitxiago emonda, ahotik harako berbakuneari leialago.

Kontaera soilak diran testuen artean, berebiziko polita begitandu jaku *Ezkontze bat* izenekoa. Horretan eta hurrengo datoreen *San Migel Arretxinagakoa* dalakoan dau ezagun kontatzaile honek parebakoa dana, eta herriko bizimodu eta ekanduak zehatz eta sakon ezagutzen zituana.

Hemengo ipuinetatik gehienak ezagunak dira; pertsonaien izen diferenteak gorabehera, gaia ezaguna dabe. Bardin *Lapramendi-ko atsoarena* zein *Laminena* zein *Alarabea-rena*. Azkenengo honek izena dau bitxia. Gai bereko beste ipuin batzuetan Tartalo, Jentila, Basajauna eta halako izenak agiri dira. Ipuinetan bitxiena eta bakanena, *Euliski-rena* dogu duda barik; ez bakarrik izenagaitik, baita edukiagaitik be. Herri-jakitu-

riak *Euliski* hori euliakaz lotu dau, eta eulijaletzat aurkezten deusku giza erraldoia, baina sustrai sakonagoak ditu; eguraldiaz lotutako pertsonaia dogu Mari Anbotokoren antzera, eta izen horren atzean *euri* izenak konposaketan hartzen dauen *eul-* erro-itxura dogu.

Honenbestegaz, bada, dastatu eizuz, irakurle, kontu eta ipuinok.

### Markinako herria

Bizkaiko probintzian herri eder eta garbi bat dago, Markina izena dauena. Bilbotik berrogeta hamar kilometro dagoz; eta burdinbiderik (ferrokarrilik) ez daukie, baina bai bidebarria.

Herriko kaleak lau dira; euren izenak: Kale okerra, Erdiko kalea, Ziar kalea, Guen kalea. Gainera beste hiru errabal daukaz; honeek dira: Artibaikoa, Goikoa eta Andikoa. Lau eleiza ditu. Parrokia, oso eder eta handia, Bizkaiko handiena dala dinoe. Bigarrena, Karmengoa edo Praileena be ederra da. Mertzedeokoa da hirugarrena, eta Beheko Monjetakoa laugarrena.

Eta Markinan beti pelota jokorako zale-tasuna agertu dan lez, pelotatoki handi bat dago aterpe barik. Herriko zelaia ikusgarria da, batez be udan, arbolak orriz jantzita dagozanean. Merkatu-rako plazak bi dira; bata zaharra, aterpebakoa, eta barria bestea, aterpeagaz. Markinarrak urez ondo horniduta dagoz. Iturriak ura ugari emoten dabe. Ur

hotza eta zerbait gogortxo da. Markinatik hamaika kilometrorra Ondarroako portua hurrena dago.

Markinarrak euskeraz ondo egiten dabe. Bizkaian –jakitunen eretxiz– lelengoak berbeta autuan. Antxinakoa da edozelan be markinarren berbeta modua. Gaur, lehen-dik apurtxu bat aldatuta dagoala esan leite-ke.

Badaukaz antigualeko etxeak be; berbarako, Torrekoa, Mugarteginekoa, Kontzeju aurrekoa, Antsoteikoa.

Markina polita bada, inguruak be oso politak ditu. Gainera lur eder eta aberatsak, nahi dala garia, artoa hartzeko, edo patata, bedar, ortuaria hartuteko.

Markinako jai nagusiak Karmenetakoak dira. Egiten dira eleizkizun ederrak Karmengo Eleizan, baita ostantzeko jaiak be; esaterako, aurrekuak, aringa-aringak, pelota partiduak, ganadu probak eta erro-meria.

## Ezkontza bat

Euskal Herrian, batez be euskera egiten dan tokietan, ezkontza autu eta gorabeherak bardin samarrak dira. Hemen nik jarriko dodana bertako usarioan egiten dana izango da. Horretarako nik asmauko dot ipuintxu bat, mamina egiazkoa dauena.

Hogeta zazpi urte inguru eukazan Agarreko Manuk; mutil sendo, kolore-gorri eta indartsua; bere gurasoakanako lotsa handikoa eta kristinau ona, bere guraso eta asaben antzera.

Agarreko baserria, ondasunez ondo egoana zan; bazterra be halakoxea, gero! Eta Manu semerik zaharrena edo nagusiena zan lez (beste arrebak bi eukazan zaharragoak ezkondu), maiorazkoa edo jaubegei lehenena zan.

Era honetan, ikusirik Manuk bizikera barri bat hartzeko sasoia eukala eta bere guraso onak zerbait aguratu zirala, erabagi eban amaitzea hondino hontsu hasi eban ezkontzeko saila.

Igozko Josepa, hor hogeta lau urteko neskatila galanta eta ganora handikoa bere emaztetzat ona litzatekela-ta, gau baten afa-lostean agertu eban bere guraria gurasoen aurrean.

Gehienetan ohi dan lez honeetarik gauzetan, alderdi askotara begiratzen da; hau dala, bestea dala, dotea zelakoa, burdiak zenbat eta abar, buruhauste gogorrek hartzen dira baserrietan.

Eta gau haretan luzaro ekin jakon gei honi Agarreko sukaldean. Gaineko egunetan be jardunaldiak egin ziran, zorionez ganora

onean eta hasarre barik. Azkenez, dote autuan konpondu ziran ezker, baietza emotea erabagi zan.

Laster izan eban Manuk Josepa ikusteko ere. Hiru egun barru Santa Eufemia zalata, egun egokia eritxi eutsan Josepagaz argiro berba egiteko. Hatx-mendi alaitsu haretan Agarreko mutilak Igozko loreari agertu eutsan polito-polito, baina osorik, lehen erdiz erdiz azaldu eutsan guraria.

Hori dala-ta gau hatan Igozko sukaldean barriketa nahikoa bazan. Joseparen gurasoak pozarren ondo eritxi eutsen alabea Agarreko maiorazkoagaz ezkontzea, eta dote ona emon behar eutsiela ezkontza hain onari eta Igozko baserriari jagokon modukoa.

–Orduan –esan eban aitak– emon geinkioz Josepari hogeta hamar mila errealeta eta burdi bi.

–Tira, ba –esan eban amak– lartxu dala be esan leiteke baina, eztabaidarik ez dogu behar; osasun-bakeagaz gozetako izan daitezala.

Agarren Igozko erabagia ondo hartu zan eta atondutzat geratu ziran alde biak. Josepa hasi da arrioa gertetan; kutxa, armario, oheak, ohemahai, silla, koltxoe, izara, almuada-azal, zamau eta enparau zapi eta jantziak. Gero hainbat lurrontzi, espilu, kuadro, goru eta ardatzerainokoak. Danak ederto atondu zituan zortzi mila errealegaz.

Izentau zan egiunea egiteko eguna hurrengo zapatuak. Egun honetan, hor hamarrak inguruan, Markinako notarioaren etxean egozan Igozko baserriaren aldetik sei

lagun eta beste hainbeste Agarrekoetik. Han ekin eutsan notarioak paperak baltzitzen; han geratu zan Manu Agarreko jaubegei, beste eginbehar batzuk beregan harturik. Han, Joseparen aitak emon zituan hogeta hamar mila errealok, eta halan hamabi eta erdietan notarioaren beharra amaitu zan. Aurrez izentauta euken jatexera joan ziran; danak anaitasunean bazkaldu eben eta gero, Markinan ibilalditxu bat eginda, etxeruntz abiau ziran, Manu ez besteak. Bada Manu joan zan Parroko jaunaren etsera, honi aitzen emotera eleizdeiak bihar hastea nahi leukela. Parrokoak paper baten hartu zituan ezkongei enizenak eta baita euren gurasoenak.

Hirugarren eleizdeiak amaitu edo hots egin ziranean, Josepa eta aita etorri ziran parrokoaren etxera. Hemen parrokoak irakurri eban *expediente matrimonial* esaten jakona, nun esaten dan, Josepa ezkondu barik dagoala, Josepak ezkondu nahi dauela bere guraz inoren gogortade barik, Josepa eta Manuren artean ez dagoala eragozpenik ezkontzako Sakramentua hartzeko, eta Josepak daukala aitaren baietza ezkontzeko.


Firmetan dabe Parrokoak, Josepak eta testigu bik. Gero Parrokoak dotrinako edo Kistar Ikasteko itaun batzuk egiten deusaz Josepari eta hemengo beharra amaitzen da, esanaz noz etorriko Eleizara ezkontzera. Beste hainbeste egin behar dabe Manuk eta bere aitak.

Heldu da Eleizara joateko eguna. Goizeko zortzirak inguruan Markinako Eleizpean dago ondo jantzita aldratxu bat; Manu, Josepa, senide eta lagun batzuk dira. Laster atera urtetan dau Parroko jaunak eleiz jantziagaz, eta jarraian hasten da ezkontzeko zeremonia.

Lelengo irakurten dau zelako eginbeharrak daukiezan ezkonduak, ze gauza txarretatik iges egin behar daben. Eta honen ondoren hiru bider dirautse ea eragozpenik dagoan euren artean. Ezetza bada (gehienetan ohi dan lez), Parrokoak itanduten deutse, Josepari lehenengo hiru modutara, Manurekin ezkondu nahi dauen, eta Josepak erantzun behar dau besteak entzuteko moduan “bai”. Gero Manuk bardin. Orduan Parrokoak Sakramentuko berbak esaten ditu, eta ezkondu dagoz Eleiza Santeak agintzen dauen lez. Ezkontza honen ezaugarritzat ipinten dira eraztunak, eta gizonak emoten deusaz emazteari hamahiru diru, edo urrezkoak edo zidarrezkoak, eta sartzen dira guztiok eleiza barrura mezea entzuteko. Meza barruan Gure Jauna hartzen dabe Manu eta Josepak. Mezea amaituta, juezak beteten dau errejistroko paper bat. Handik urtetan dabenean, zeozer hartuta, ezkonbarriak egun bi edo hiru igarotera joaten dira herri handiren batera, eta etxeratzen diranean egiten da jai handi bat.

Agarreko baserrian zer ikusia egon zan Josepa eta Manu Donostiatik etorri ziran gauean.







## San Migel Arretxinagakoa

Markinatik hurrean eta Xemeingo alderdian dago auzotegi bat, *Arretxiña* (Arretxinaga) esaten jakona; zelai txiki polit bategaz, intxaur arbolak bertan, iturria... eta Xemeingo Kontzejua ikastetxeaz gainera.

Baina gauzarik ikusgarriena Arretxinagan, San Migel goiaingeruaren Eleizea da. Udaldian kanpotar askok ikusi nahi izaten dabe. Zegaitik ete da? Hara, eleiza horren barruan hiru hatx edo harri handi eta ikaragarriak, bi behean eta bat euren gainean, dagoz, hain modutan eze, esan leiteke jausi behar dabela. Hatx artean ezkutauta lez dago San Migel zahar bat, antxinakoa. Altaran dagoana hontsukoagoa da. Beste altara bi daukaz, San Antolinena eta San Jazintorena.

Nondik eta zelan sortu ete ziran hiru hatx izentauak? Gizonak ipiniak dira? Ala berezkoak? Gauza ziurrik ezin esan geinke, bietera berba egiten dalako.

Gizonen beharra dala dinoenak esaten dabe badagozala horreetariko beste behar batzuk oso gatzak, gizonen indar eta asmoen gainetikoak dirudienak eta, halanda be, jakitunen eretxian gizonak eginak diranak.

Beste alderdikoak –da esatea hiru hatxak berez, gizon-lan barik, halan dagozala esaten dabenak–, adierazo nahi dabe hiru hatxak lur edo mendi barruan zirala eta gizonak geldi-geldirik, inguruko eta bitarteko lurra kenduta, hatxak garbi itxi zituela, eta ez dakit nork, San Migel zaharra bertan agerturikoa dala esan dau.

Oin esatera noa Xemein eta Markinan San Migelen hiru harri horreetaz dagozan siniskera batzuk, eta lelengo siniskera horreek ia ahaztu dirala, gaur gogoratu

bakarrik egiten diralako. Sustrai handirik ez euken eta jausi egin behar.

Siniskera bat da, hagineko minagaz bat aurkitzen danean, San Migelgo edo Arretxinagako hatxaren zatitxu bategaz osatu ahal izatea. Horretarako norberak joan behar dau Arretxinagara, kendu hatxari zati bat eta gauaz almuadapean ipini harri ataltxua eta kitu!, hagineko mina igesik doa... nahi badau.

Beste siniskerea barregarria da. Nok ez dakiz neskatala askok hartzen dituen buruhaustek senargei on bat topetako? Erromeriak dirala, feriak dirala, urlia herriko jaiak, berendiko ikusmirak, neskatalai hankak jaso eragiteko egokienak dira, eta dotore eta txukun badoaz, sarritan bide luzeetan, jolastera edo olgetara; senargei on bat, ai!, begiztauko baleukie!

Datozala lelengo Arretxinagara eta ez dai-tezala ahaztu bertako Eleizeagaz. Hemen itanduten badabe, entzungo dabe: “Neskatala batek senargei on bat topau nahi badau, sartu daitela hiru hatxen artean zehar eta batetik bestera pasau daitela San Migel zaharra dagoan ondotik, eta urte barruan senargeia berea dau.”

Irakurlea, ez uste izan hor agintzen dan kondizinoia errez-erreza dala. Ikusiko bazenduz neskatala batek hartzen dituan lorrak hatxpeetan zehar pasetako, esango zenduke: “Merezi jok nahi dabena jaristea. Makur-makur eginda eta noizean behin kas-karreko banakak hartuta, hauts-amaranez lohituta, eta gainera hatx bildugarri haren azpitik... ez da penitentzia makala, gero!”

Eleizearen siniskerea ez da, baizen antxina baten batek asmaurikoa, eta hor konpon neskatala haren senargeia hondino jaioteko badago, hauts-amarauak hartu arren.

## Alarabea jigantearen eta gizon-jatailearen ipuina

Zekendioko mendian, Markinako lurraldean, bizi zan gizon bat, gizon-jailea, Alarabea esaten jakona. Hanka-bakarra eta begi-bakarra zan. Euria zanean, bere oinagaz estaltzen zan. Artzaina eta artalde handiaren jabe zan. Kobao baten bizi zan eta kobaoaren atetzat harri handi bat eukan. Inguruko bildurgarria zan Alarabea, gizon-jailea zalako.

Behin gizon erbesteko batek Zekendioko menditik joiala aurkitu eban Alarabea ardi-zainen. Erbestekoak gizon hain handi eta itxurabakoa ikusirik, bildurtuta geratu zan. Alarabeak ikusi ebanean gizona, besoagaz ‘honako’ bat egin eutsan, bere ondora joateko. Ikara-ikara heldu zan gizona Alarabeagana.

Honek agindu eutsan ardi-batzen eta etxera eroaten laguntzeko, gero alkarregaz afalduko ebela-eta.

Halantxe egin eban. Sartu zituen ardiak kobaoan, itxi eban Alarabeak atea harri handi bategaz, eta hasi zan afaria gertetan.

“Ene!” erbestekoaren ikarea, ikusi ebanean Alarabeak gizon-hankeak burduntzian su gainean ipini ebala erreten!

Orduan esan eban beretzat: “Honek giza-haragia jaten dau eta ziur neu be hilgo nau”.

Alarabeak, ostera, baeutsan anka-erreteari, eta behin erre ebanean atera eban mahaira, eta burduntzia kenduta hasi zan zehetzen.

Erbestekoa zain egoan; eta Alarabea albora begira egoan baten, hartu eban burduntzia eta tximistan sartu eutsan begi bakaretik, eta bizkor sartu zan artaldean.

Han ebilen Alarabea itsututa minez eta amorruz garrasi baten, jo batera eta jo bestera, erbestekoa atrapau nahian, baina ezin eban.

“Arraioori! Atrapauko haut, ba!” esanda, Alarabeak zabaldu eban atea. Ardiak hasi ziran banan-banan, ohi eban lez, urteten, eta Alarabeak atean jarrita hartzen zituan banan-banan eta jaurtzen zituan kanpora.

Jakin ebanean erbestekoak Alarabearen asmo okerra, pentsau eban ardi-narruz janztea. Eta kobaoan esegita hainbat ardi-narruz egoan lez, laster ardi-narruz estaldu zan. Gero sartu zan ardien erreskadan eta lau oinean heldu zan ateraino.

Alarabeak, txarrik susmau barik, hartu eban gizona eta, ardia zalakoan, jaurti eban kanpora. Horraitio bota eta bertatik konturatu zan ardiak baino astunagoa zala, eta esan eban: “Hontxe galdu nok, horixe izan dok neure arerioa!”

Desesperauta sartu zan kobaoan. Erbestekoak hartu eutsazan ardi guztiak eta Alarabea gosez kobaoan hil zan.

## Euliski jigantea

Antxina Markinan gizon handiak ei ziran, batez be Euliski eritxona eta Xemein gainean bizi zana. Dinoenez, Euliski egarri zanean, hanka bata Oizen eta bestea Maxen ipinita itsasoan ura edaten eban.

Euliski (bere izenak dinoanez) euli atrapatzailea zan. Behin, ohi eban lez, ura edatera joiala, ikusi eban Debako itsasaldean baltzunetxu bat eta, eltxoren bat zalakoan, Jesus baten iruntsi eban... txalupa handi bat gizon eta guzti.

Euliskik zelako burua eukan ondo agiri da, burua Xemeingo Eleizako horma ondolan etxunda, goiko bentanatik begi bataz abadea ikusten ebalako, mezea entzun gura ebanean.

Beste behin Markinako arotzak haritx tantai handi bat bota eben gabi-ardatza egiteko, eta Euliskik gau haretan lotan egoala iruntsi eban gabi-ardatz-geia eulia zalakoan.

Hurrengo gabea arotzak joan ziran tantaia ekartera, baina zoroarenak egin arren, ez zan inon agiri.

Jo eben gero Euliskigana, honek zura non egoan ete ekian jakitera. Euliskik besterik ez ekian, gauzaren bat lotan eulia zalakoan iruntsi ebala baino.

Hau entzun ebanean susmau eben arotzak bizar artean eukiko ebala tantaia, eta joan ziran Markinara kodainak ekartera Eliskiri bizarra ebateko. Izerdiz zehatz busti arte jardun arren honetan, eta hogeta hamar karabirentzat erregarria bizarretan ebagi arren, ez eutsen topau haritx tantaia.

Orduan esan eban Euliskik: “Itxaraizue, mutilak, apur baten; prakak eraztera najoiak eta etorri zaitezte bihar; beharbada...”

Halantxe egin eben arotzak eta hurrengo egunean topau eben gabi-ardatz-geia, Euliskik eulia zalakoan iruntsi ebana.

Markinarrak burruka gogorra beste herri batzukaz euken. Markinarrak zintzo jo arren, arerioak asko ziralako edo, estu eta larri aurkitzen ziran.

Egun baten jakin eben koluna osoa Oizen zehar etorrela Markinaruntz eta, zer egin ez ekiela, badoaz arin-aringa Goikometalera Euliskiri esatera, lehenbailehen atera eizala egoera larri haretatik, berak jaso ahalako zaku urrea emongo eutsela-eta.

–Ez bildurtu, mutilak– dino Euliskik, –laster egingo joagu horreana.

Oinkada txiki bategaz heldu zan Iderragara. Jan zituan han inguruan egozan okaranak hazur eta guzti, eta handik ordu batera, arerioen kolunea agertu zanean Erdotza aldean, hartu eban Euliskik arnasa luze bat eta hara non urteten dauen beragandik segiduan eta bat-batera haize bolada ikaragarri batek okaran hazurrakin nahastean, eta arerio guztiak, orbel igarrak hego indartsuaz lez, etorri ziran baino arinago joan ziran Oizen zehar haruntz... ez dakigu noraino.

Markinarrak, pozez birlorauta, Euliskiri berea emon behar jakola-ta, idi narru bi alkar josita egin eben zaku handi bat, eta urrez beteta emon eutsien Euliskiri. Honek atzamar bategaz jaso eban urre zakua, eta gehiago eskatu barik joan zan Goikometalera.

## Laminak

Antxina errecondoko etxeak eta etxeerrotak laminaz inguratuta egoten ei ziran. Euren eginez inor be ezin bizi..., hain ziran gogaigarriak, txarrak eta zikinak laminak! Eurak gerriz goitia andrazko ederrak lako-

xea eben eta gerriz beheitia arrain buztana lakoa.

Bauskain baserri-etxean, behin bizi ziran gizon alargun bat bere hiru alabakaz. Etxe honetan be laminak ugari ebilzan, eta subu-

ruko laratzean behera jatsita, batean sapo handia sartu egosten egoan lapikoari, beste-an esnea egosten egoan ontzira bota eta abar. Holako gauzak ikusi ezker, inork be ezin jan eta eurak bai, eta hori egiten eben eurak nahi eben guztian, eta ezin ezer egin, bestela, egin ezker, etorri pilo handia eta ito arin!

Behin, hiru alabetatik Josepa izena ebanak laster kendu eutsan bateri hareetako ibili-aldia.

Afaria ipinten egoala, hau da, taloa eta esnea, suburuko laratzean egosten ipini, lasterrean hona non jasten dan laminea, sapo handi bat eskuan dauela, eta dirautso afaria prestetan egoan Josepari:

–Zelan jatzu izena?

–Ni neu.

Osterabe:

–Zelan jatzu izena?

–Ni neu.

Eta orduan lamineak, eskuan eukan sapo handia egosten eukan esnetara botaten dau, baita Josepak be hartzen dau burduntzia eta rass! sartzen deutso lamineari garri-garritik, eta laminea hasten da aieneka eta uluaka, ikararik be ezin dauela egin.

Eta datoz gero Oxilain aldeko eta Axmendi aldeko lamina guztiak lamina haren aieneetara eta uluetara, eta itanduten deustie danak min hartuta egoan lamineari ea nork egin eutsan, eta erantzuten eban beti, “nineuk”. Besteak:

–Hor konpon, heuk egin don, heuk euki ein.

Osterabe lehen baino gogorrago “nineuk”, eta besteak lehen baino gogorrago, “heuk egin badon, euki ein heuk”.

Orduan danak alde eben ha lamina minberatua han itxita.

## Lapramendi atsoa

Markinan Artibaiko auzunan atso bat zahar samarra bizi ei zan, berau sorgina esaten ebenez, eta izena eban Lapramendiko atsoa.

Artibaiko auzunan, Txabinen etxean senar-emazte bi bizi ziran, eta emaztea gorulari ederren bat zan, eta behin baino sarriago afalostean, gizona ohera joanda gero be, geratzen zan goruetan gogor.

Gau guztietan suburuko laratzean agertzen jakon katu zuri handi bat eta  $x-px$ ,  $x-px$  esaten eutsanean, uleak harro-harro eginda eta puzka, eltzera egingo baleu lez jarten jakon, eta gainera berba egin eta goruetan itxi ez.

Emazteak esaten deutso gizonari jazoten jakona, eta gizona hurrengo gabeen bera goruetan geratu zan, emaztea ohera bialduta gero.

Ostera be non agertzen dan esandako katua laratzean behera, eta ekin deutse barriketan:

–Bizarrak eta goruetan?

Gizonak dirautso:

–Katua eta barriketan?

Gizonak, sueteko ilintia hartuta, jo dau katuori lepazurrean. Suburuko laratzean gora tximistea lez egin eban.

Biharamon goizean non entzuten dan Artibaiko auzunan Lapramendi atsoa eleiza-koak eraginda garria hausita txarto dagoala.

## Marixa Kobauko

Marixa Kobauko, gero, Anbotoko Seño-rea edo damea da. Urten Anboton eta sua atzean ebala buztan bat lakoxea, etorten zan Gabaroko kobaora. Hemen denborada bat eginda, osterabe bere buztan argiaz joaten zan Anbotora. Trumoiak joten ebanean, trumoe adarretatik urtenda lez etorten zan, halakorik!, kobaora. Inork ikustea ez eban nahi izaten kobaoan egoten zanean, ze eguerdiko hamabietan, eguzkia zanean, orraztera urteten eban kobao ondora, eta bat edo bat ikusten baeban, kas!, barrura sartzen zan. Makina bat susto galant emon dau Marixa Kobaukok!

Igozko ikazkinari bat (hau neuk ikusia). Gabaz ikatz txondorrari jera bat egitera joan

zan (zuloak tapetara zohi edo lurragaz). Eta ze kontu!, ikaztobira zanean, hara non bere gainean zehar goitik pasetan dan Marixa sua dariola, ta gure Mitxel (ikazkinaren izena zan hau) geratu zan ikara-ikara, zer egin ez ekiala, ezetako adore barik. Bitartean ikaztobia zuloz beteta su baten egoan.


Halantxe topau neban nik ardi bila nobilela. Errezetan egoan gixajoa!

–Zer dok, Mitxel?

–Marixa Kobauko lehentxoago ikusi joat Santa Eufemiaruntz.

–Tirok, Mitxel, ez eiok federik emon; loboren bat izango zoan. Zehatz erre baino lehen tapau daiguan txondorra.

Halantxe egin genduan.



## Barrueta-torreko Ortulaua

Urteak dira esatera noana jazo zala. Barrueta-torreko jaunak ortulau azkar bat eukan. Ortu arazoetan aurrerea bazan, ortu ingurura madari usainean etozan mutil gazteai hankajokoa eragiteko be ez zan makala. Batzuetan hanka-jasotea baino txarragoa zan gazteen saria. Bestela esan beigue Barruetaruntz madari sasoian jokerea euken markinar mutilak, baten baino sarriago lepoa ondo berotuta madarien ordezkari ohi ebenak.

Gauero-gauero igaroten zituan ortulauak ordu batzuk madariperen baten ezkutauta. Eta hara madari-lapurretara etorrenari naruko galantak emonda, kentzen eutsan osterabe etorteko gogoia.

Behin horraitino Markinako mutil bik lakatz ederra sakatu eutsen ortulau horri. Gau baten kate zahar handi batzuk hartuta, heldu ziran biak Barruetako ortuaren hor-

metara. Baekien ortulaua madaripean egongo zala ohi eban lez, baina gaua ilun-iluna, eskua begien aurrean ikusi ezinekoa zan eta, isilik batak goiko horma gainera eta besteak behekoarenera urten eben.

Bertatik eta itzaltsu hasi ziran alkar berbetan:

Goikoak: –Satanas!

Behekoak: –Zer behar dok, Barrabas?

Goikoak: –Hor madaripean dagoan gizona eroaik inpernura tatarraz.

Hemen hasten da behekoa kateagaz zaparrada baten, zirrin-zarran, zirrin-zarran.

Ortulauak: –Kone! Zer dok hau? Deabruak neu eroatera jatozak!

Bazan hankaotsa madaripetik etxera. Orduan jatsi ziran mutil biak ortura, jan eben nahi beste madari eta kolkoak ondo beteta Markinara joan ziran adurra dariola, barrez ortulauaren lepotik.

# Esporateka magikoa (Iraultzaren kronika)

Emakume gazteek haurrak ugalketa-adinean izateari uko egin ziotenean abiatu zen benetakoa iraultza.

Arestian izan ziren ama ez izatea borondatez hautatu zuten emakume bakanak, izanik arrazoia beren uste sendoak edota amatasunaren loturak onartzeko adore falta edo gogo gabezia.

Gure belaunaldikoak sartuta geunden berrogeitaketan, eta *Iruzurraren Belaunaldia* izendatu ohi dena osatzen genuen: gizon onak geneuzkan, oro har, baina begilaburrak. Eta ikusmenaren murriztasun hori zen, hain zuzen ere, sexuen arteko desberdintasun etsigarriari irau-narazten zion kausetako bat.

Gure gizonek ikasia zuten, adibidez, seme-alabak gurditxoetan paseatzen, etxe-tresnak maneiatzeko eta eskolako hitzorduak adosten. Halaber (betidaniko ezaugarria bazuten ere) aparteko trebetasuna ageri zuten sukaldaritzarako, batik bat familiarteko txangoetan eta txokotetan. Baina ez zuten hautematen altzarrietako hautsa, ez zituzten bereizten pix arrastoak WCko lapikoaren ingeradan, ezta ere koipea baldosetan edo botoi galduak etxekoen arropetan.

Ikusmen-gutxitasuna zinez eragozpen latza zen eguneroko jardunean, gutxieneko kuotaz gain zer beste etxeko lan egin behar zen konturatu ahal izateko. Alegia, funtsezko printzipioa —“zer gehiago egin behar den ikusi eta segituan egin, inork noiz esan egon gabe”— hutsaren hurrengoia zen praktikan, etxe barruetako errespetuaren aurreneko bermea izan behar zukeen arren. Aldi berean, printzipio horren aplikazioa hain mugatua zelarik —aipaturiko ikusmen-atrofiaren ondorioz— frustrazioa, amorrua, ulergaitzasuna eta koldarreria progresio geometrikoan ugaritu ziren populazioaren sektore emean, halako eran non ez zegoen emakumerik hiato-herniarik, depresio arinik eta nerbio-atakerik pairatzen ez zuenik.

Zailtasunak zailtasun, sektore emearen potentzialitateak bilakaera izugarria ezagutu zuen. Emakumeek, guztiz ohiturik etxeko lana eta kaleko lana konbinatzen, batez besteko 20 km-ko abiadura garatu zuten goiko eta beheko gorputz-adarretan. Horri esker, gaitu egin ziren denbora-tarte laburretan hainbat jarduera burutzeko, hala nola erosketak egiteko, garbigailua ipintzeko, lixiba zabaltzeko, afaria nahiz bihar-ramuneko bazkaria prestatzeko, bi garbi-txan-



dako arropak lisatzeko, haurren ariketei begiratu arina emateko, eta guraso zaharrei deitzeko, izan bakardadeaz, izan azken gripeaz interesatzen.

Errendimendu-maila altu horrek gehi bizikidetzaren porrotaren errudun ez sentitzeko obsesioak honako efektu hauek izan zituen emakumeentzat:

—gorago aipaturiko osasun-arazoak

—irakurzaletasunaren beherakada

—lorontzia edota mesanotxeko apaingarriak sexu-harremanen mementua aprobetxatuz txukuntzeko ohitura

—bizitza paralelo bat imajinatzeko joera, non printzesak edo hawaianak ziren

—semen-biltegien eskarien gorakada

Baina efektu garrantzitsuena, horrexek ekarri baitzuen erabateko aldakuntza soziala, epe ertainera etorri zen, eta ondoren deskribatuko dugun mutazio fisikoa izan zuen ardatz.

2.045ean, K.A.T. izeneko emakumeak, hirurogeita bi urte betetzear zegoela, berritasun bat igarri zuen bere fisiologian: kozkor txiki bat sabelaren ezker aldean, infektaturiko bilo batek eragin dezakeenaren antzekoa. K.A.T.ek ez zion kasurik egin, harik eta bi aste geroago kozkorrak ostadarren koloreak hartu zituen arte. Inolako minik ez molestiarik sortzen ez zion arren, emakumeak medikuarenera jo zuen iritzi eske, kiste kaltegarria ez zela segurtatzearen, bederen. Sentitu, K.A.T. ondo sentitzen zen, nahiz eta aldika, euforia boladak, isolatzeko gogoak, gorputz-tenperaturaren kontrasteak, eta apetitoaren eta loguraren gorabeherak igarri.

Froga sorta baten ondoren, doktore andrea ondorio harrigarri batera iritsi zen: K.A.T.ek bere aurrejubilatutako sabel bigunean luzitzen zuen intxaurtxoa *alfa a* eta *alfa a*” motako ugal-zelu-



len xixkua zela. Berehalaxe, bi emakumeek —batak zientziaren tradizioetik eta besteak bere irudimenaren iturritik edanez— deitura espezifikoa honekin bataiatu zuten ezohiko poltsatxo hura: *esporateka magikoa*.

K.A.T. mugarria bihurtu zen garaiko medikuntzarentzat eta kazetaritzarentzat, iragarri zuenean haurdun zegoela bere borondate hutsaren poderioz eta inolako eta ezein arren parte-hartzerik gabe.

Kasua eskandaluzkoa izan zen familia kon-  
tinuistentzat. Horiek, alde batetik, ama izateko  
adinik egokiena berrogei urtetik beherakoa zela  
defendatzen baitzuten; eta bestetik, aitaren iru-  
dia aldarrikatzen baitzuten prolearen nortasuna  
eratzeko nahitaezko erreferente gisa. Manifes-  
tazioak antolatu zituzten, non emakume kon-  
tserbadoreak sabela airean ateratzen ziren haur-  
dunaldiko estriak eta zesareen orbainak erakus-  
teko, “NI BENETAKO AMA NAIZ” lelopean.

K.A.T.ek, ordea, entzungor egin zien pro-  
testeiei eta juzkuei, eta adierazpen hauek egin  
zituen kameren aurrean:

—Ez dut inoiz bikotekide egonkorrik izan.  
Independentea eta intelektualki jantzia naiz, eta  
izaera atseginetako, gainera. Bizitzeko gogo  
dut, eta inoizkorik asti gehien daukat orain.  
Horregatik erabaki dut ama izatea. Gainera,  
nirearen antzeko egoeran egon litezkeen beste  
emakume guztiak adoretu nahi nituzke ausartak  
izan daitezen askatasunez erabakitzeko.

—Arren, esplikatu zeniguke zertan da-  
tzan *alfa a* eta *alfa a*” zelulen ernalkuntza-pro-  
zesua? —galdetzen zuten kazetariak.

Doktore andreak azalpen hau eman zuen:

—Uste denaren kontrara, ez dago misterio-  
rik. Prozesua gauzatzeko, *alfa a* eta *alfa a*”  
esporak elkartzeko gogo sakona baizik ez da  
behar, eta bitartean, otoitz zahar hau ahoskatu:  
“Eguzki, ilargi, su eta elur, nire gorputzaren  
magiaz ez naiz beldur”.

Laster atera ziren argitara esporateka magi-  
koen beste hainbat kasu. Eta arian-arian, gero  
eta emakume gehiagok berandutu zuten amata-  
suna oso adin handietara arte. Bidenabar,  
gubernuek ikerkuntzan eginiko inbertsio esker-  
gak medio, mirarizko tratamenduak aurkitu  
ziren gizonezkoen ikusmen-minusbaliotasuna  
zuzentzeko. Horrenbestez, lan-banaketaren ore-  
ka-maila txalogarrietara iritsita, biztanleriaren  
zahartzea eta horren ondoriozko krisi ekonomi-  
koa berbideratu egin ziren.

Berdintasunaren alde jokatu zuen gertaera  
mitikoari buruzko kronika labur honi bukaera  
emateko, xehetasun bat eranstea besterik ez:  
esporatekak beti sortu izan zirela sabelaren  
ezkerraldean, edozein arrazonamendu logikotik  
deduzi daitekeenez, bihotzaren kokapenarekin  
lerrokatu.

## Bisitan

Herensugea lotan dago. Behinola enperadoretzaren ahalmenaren ikurra eta zorte onaren eramaile izandako herensugea lotan dago. Bera iratzartzea arriskutsu bide da, iratzarraldi txarra suertatuz gero, herensugearen ahoari darizkion sugarrek aurkitutako guztia aurrean erabili eta erreko lukete eta, sekulako sarraskia sortuz.

Horregatik dabilta isil-isilik Mekong-en deltako amaibako arroz-soroetan diharduten nekazariak. Ez daude prest hainbat izerdi isuriarazi dien lan nekeza herensugearen lo ondo haserrealdi batek kiskali dezan. Haizearen hots fina baino ez da entzuten garauz betetako arroz-zurtoinen artean sigi-saga. Herrialdearen beste puntan, iparraldean hain zuzen ere, brisara epel batek irristarazten die bela karratudun belauntziei Halong badian. Zerutik badia honetara bertara jaitsi ei zen herensugea vietnamdarrei euren arerioen kontrako burrukaldian laguntzeko.

Paisaia ederrok dabilzkio lotan eta ametsetan dagoen Mikeli. Arroz-soroen berdearen ederra, bela karratuen gorriskaren ederra. Nekazarien isiltasuna, arrantzaleen trebetasuna. Lasaitasuna eta bakea leku guztietatik dariola harik eta napalmaren sugarra agertzen den arte herensuge haserretuaren su-lama bailitz. Bero-tasun kiskalgarriak iratzarriko du Mikel izerdi uharretan.

Segundu batzuetan ez du jakingo non dagoen, zertan dabilen. Besaulkian jesarrita-edo dagoela konturatuko da gerotxoago. Lo-kuluskatxo bat egin duela. Lo-kuluska besterik ez, ezin dio eguerdi-ondokoa ez arratsaldeko lo-kuluska ezta bazkalaurreko lo-kuluska deitu, ez daki-eta zer ordu den. Egongelako leihotik sartzen den argitasunak diotsonetik egunez da. Erlojura begiratu beharko du: arratsaldeko laurak. Arratsaldeko laurak besterik ez, arratsalde luzearen panorama agertuko zaio begi aurrean. Besaulkian iltzatuta-edo daraman denboraldian, goizak, arratsaldeak eta gauak euren hurrenkara galdu dute, berdin goizetik zein gauetik abiatu, den-dena continuum bat balitz moduan, denborak berak ere bere esanahia galdu arteraino.

Ez daki gose den ere. Gosaria eginda dago, hori bai. Erlojuaren arabera, atzeratutako bazkal ordua litzateke. Baina ez dauka bazkaltzeko gogorik. Ohetik berandu altxatu denez, gosaria ere ohi baino beranduago egin du. Jatorduak desorduak dira honez gero. Jaten duenean ez da gose delako, zerbait jan behar duelako eta zerbait egin behar duelako jaten du. Denborarena bezala, gosearen esanahia galdu egin du.

Loaren erritmoa ere galduta dauka. Beti izan da lotarako ona, ez du inoiz loezinik izan, denok ditugun gau solte batzuk kenduta, gor-

putzak izarak ukitu eta loak hartzen izan du beti. Orain, oster, edozein unetan besaulkian erdi lo gelditzen da eta behar denetan, ohean gauetan, ez du lorik hartzen.

—Tibia hezurra hautsita daukazu, ondo hautsita gainera. Igeltsua jarri beharko dizugu eskumako hankan. Beraz, hiru astetan ezin izango duzu hanka hori lur gainean jarri, ezta etxetik kalera joan ere; hasi gero apurka-apurka makuluekin kalera eta orduan etorri berriro kontsultara. Ah! eta ahaztu betiko futbito kontuak. —Horixe izan zen orain hiru aste ia medikuaren ahotik entzundako sententzia.

Etxeratzeko agindua jaso eta bigarren egunera, erosketa-zerrenda egin eta auzoko supermerkatuarekin deitu zuen. Handik etxera bidaliko zioten hilabeterako-edo beharko zukeena. Horrez gainera, ostegun arratsaldeak libre dituen lagun bat zihoakion ostegunero, solasaldi luzeak egin eta kaleko berri emateko; bide batez gutunontzikoak batu eta eguneroko premietan laguntzen zion.

Denboraldi baterako agur lanari, agur lagunarteari, agur oporrei, agur betiko futbitoari?, ez zen horrenbestera izango ba. Ondoetorri etxeko lau horma artean egoteari, gorputz guztia sormindu duen besaulkiari, jarrera egokirik aurkitu ezinari, denboraren neurria galtzeari.

Horri zerrenda guztiorri ekin dio lo-kuluska egin eta gero. Gehien kostatu zaiona, oporrei agur esatearena izan da. Izan ere oporretan Vietnamera joateko asmoa zuen. Irakurriak zituen horretarako herrialdeari buruzko datu geografikoak eta historikoak, biztanleen ohiturak, jarrira zituen jarri beharreko txertoak eta ikasita hartu beharreko prebentzio-neurriak. Aurretiaz ordainduta zuen bidaia osoa. Jazotakoa jazota, bidaia-agentziazatik esan zioten baze-

goela egon dirua berreskuratzeko biderik. Dirua berreskuratzea garrantzitsua izan arren ez zen beretzat garrantzitsuena. Garrantzitsuena eta tamalgarriena, beretzat, Vietnamera ezin joatearena zen. Agur herensugearen edo herensugeen lurraldea ezagutzeko aukerari.

Josuk, bere erara, Mikelen falta sentitzen du kalean, honek bestearen falta inondik inora sentituko ez lukeen arren. Ez du hiru astez kaletik ikusi, eta hori ez da normala, ohizkanpoko da hori. Mikelen ordutegia da berak ondoen ezagutzen duena. Inongo agendan idatzi behar ez duen ordutegia, buruz ikasitakoa, zehatz-mehatz buruz esango lukeena: zer ordutan ateratzen den etxetik lanera, zer ordutan etxeratzen den, lanetik etxera zuzenean datorren ala ez, lagunekin noiz atera eta noiz bueltatzen den, zer egiten duen asteburuetan; horiek guztiak esango lituzke papagaiaren antzera.

Izan ere kalea da Josuren etxea, hantxe ematen du denborarik gehiena, bere ahurra baino hobeto ezagutzen du kalea. Hankak arin dabil auzoan gora eta behera, auzotarren bizitzak zeltan. Lapurra da-eta Josu, eta ondo bete behar du bere lana. Lapurreta txikiak dira bereak. Gustatuko litzaioke munta handiko lapurretak egitea, bai, baina hori ez dago edozein lapurren eskutan. Lapurreta handietara heldu baino lehenago, gainera, txikietan saiatu behar, curriculum osatze aldera. Eta prest dagoenean, azkenengo kolpea jo, lapurretarik itzelen egin, zain duen altxor preziatua eskuratu eta ospa egin, Brasilerako edo, Asiako garapen-bidean dagoen lurralde batera edo, gaur egungo hizkerak dioenez, Asiako azalaratze bideaneko herensuge batera edo.

Mikel oporretan dagoelako susmotan dago egon, sasoi honetan hartzen ditu eta, maletak

hartu eta kanpora doala ikusi ez badu ere. Bera konturatu barik alde egin badu, seinale txarra da hori, erne-maila jaitsi egin dueneko seinale hain zuzen ere. Ikusi du ikusi Mikelen lagune-tako bat ostegunero osteratxo bat egiten baina itxurak egiten dabilela iritzi dio, gutunontziko batzen, landareei ura egiten, leihoak zabaltzen eta ixten, eta horrelakoak egiten, jolasean, lapur hasi berriak nahasteko.

Gaur, baina, ostirala da eta Mikelen etxera osteratxo bat egitea erabaki du. Arratsaldez, egun argiz egingo du sartu-irtena, denen begi-bistara, horrela egiten dira-eta lapurretarik onenak, inork ezer susmatu barik.

Mikelek besaulki aurrean daukan mahaitxora eskua luzatu eta bertan dagoen poltsikorako egutegitxo hartuko du. Laneko mahai gainean duen egutegia ikusten ez duenetik, egunen hurrenkera ere ahaztuta dauka. Zenbatzen hasita, bihar hanka hautsi zuenetik hiru aste beteko direla ikusiko du. Hiru aste joanda behingoz! Zelako poza! Bihar makuluak hartu eta kalera joan ahal izango du.

Pozez zoratzen dagoela, hara hor non entzuten dituen etxera sartzeko atearen sarrailan hots batzuk. Zur eta lur geratuko da. Nor edo nor sartzeko ahaleginetan dihardu. Ostirala izateaz aparte, ez du berak inor, horrela sartzen ausartu daitekeen inor itxaroten. Besaulkian inoiz baino iltzatuago geldituko da, zirkinik ere egin barik.

Klak!, sarraila apurtu eta sarrerako atea indarrez zabaldu du norbaitek. Pauso hotsa, isil-isilik ibili gura duenaren pauso hotsa gero pasiloan zehar. Azal hotz eta berriro izerdi uharretan dago Mikel. Eskumako eskuaz makuluari heldu dio, ezpatari nola. Minusbaliatuta egon arren, bere burua defenditzeko prest dago.

Josu, deporterako poltsa bat sorbaldan egongelan sartu eta Mikel hanka igeltsatuta makulua berarengana zuzenduta ikusi duenean, harrituta gelditu da, zer egin ez dakiela. Ez zuen horrelakorik espero. Nor eta Mikel bera etxean! Bestearen planta ikustean, lapurra neure etxean! pentsatu du Mikelek. Bata besteari begira gelditu dira, elkarren begiradari eutsi diote, segundo eternaletan.

Besaulkiaren eskumako beso-euskarrian jarri du telefonoa egunokaz Mikelek, eskurago dauka horrela eta. Lapurraren begiradari eusten diola, betertzarekin hantxe dakusa telefonoa. 112 markatu eta Sos Deiari deitzeko bulkada datorkio. Zelan, baina, eskumako eskua ezpatari eustera duenean. Lapurrak, gainera, jauzi egin eta erraz baino errazago eragotziko lioke telefonotik deitzen.

Josuk ere ez daki zelan erreazionatu, nola erantzun makulu mehatxatzaileari. Atzera egin eta etxetik irten, hori ere ezin du egin, Mikelek ikusi ikusi egin duelako eta laster ezagutuko lukeelako komisaldegian errudunen-ezagutze prozesuren bati ekinez gero. Bestalde, bera lapurra da, baina printzipiodun lapurra. Ostu eta horrelakoak bai, baina berak ez dio inongo gizakiri erasorik egin, are eta gutxiago elbarri bati. Lapurra da bera, ez giza-erasotzailea.

Eternala iritzi dioten unea igarota, tratua egin behar dutela agindu die euren barrenak bioi. Josuk ekin dio tratuari lehena:

—Arratsalde on, Mikel.

—Zelan dakizu zuk nire izena?

—Zutaz asko dakit nik— asko dakienaren itxurak eginenez, izenarena gutunontzian irakurri badu ere.

—Eta zu, nola deitzen zara zu ba?

—Josu dut izena.

—Bueno, horretan itxiko dugu, ez dut uste benetako izena esango didazunik eta.

Josuk zutunik dirau. Mikelek makulua jaitsi eta besaulkiaren kontra jarriko du, eskueran badaezpada. Eguneroko beharrizanetarako inoren menpeko denetik, bihozberago sentitzen du bere burua, zaurgarriago hobeto esanda.

—Ez zaitetz hor zutunik gelditu. Jesarri beste besaulki horretan, hor neure aurretxoan, neure begi-bistan. Eta esan orain, zer dela-eta zure bisita?

Josu dago orain egoera ahulean, ez zuen horrelako jarrerarik itxaroten eta.

—Ba..., zoriz sartu naiz etxebizitza honetara..., bertan inor egongo ez zelakoan...

—Inor ez zegoelakoan, zer egitera?

—Aizu, txantxetan zabilta ala? Ezin duzu igarri hona zerk ekarri nauen ala?

—Kontuz gero, hemen galderak neuk egiten ditut eta. Neure etxean nago, horretarako esku-biderik izango dut behinik behin.

—Zure etxera sartu eta bertan errekiatzea merezi duen zer edo zer dagoen ikustera etorria naiz.

—Errekisatzea, beraz, horrela deitzen diozue orain zeuen zereginari.

—Bai, hala da. Badira beste sinonimo batzuk ere: maileguan hartu, eperako gordailua zabaldu, fidantzan hartu...

—Tira, tira, nahikoa da pare batekin, ulertzen dut. Begira orain zure ingurura. Ez dut uste nire etxean baliozko ezer aurkituko zenukeenik. Emango nizuke eman auzo honetan bertan errekiatzeko gehiagorik zuketan etxebizitzaren berri.

Josuk begirada bat emango dio egongelari, begirada laburra izan ere, ez du bere begirada profesionalak luzeagorik behar-eta etxe bateko ondasunei neurria hartzeko. Etxe normala eta

arrunta deritzo, gustu onez dekoratua, luxu bakoa, nahikoa bere asmoetarako, berak ez du esne-mamitan bizi nahi, etxerik arruntenak ere baliorik nahiko gorde dezake lapurreta txikietan diharduenarentzat.

Lurrean itxi duen deporterako poltsari erreparatu dio Mikelek. Josu bakero eta kamiseta hutsean dago, eta ez du ematen aldean armarik daramanik. Jakinmin handia du poltsan zer gorde dezakeen ezagutzeko.

—Jakin gura nuke jakin zer daramazun zure poltsa horretan, zer erreminta klase darabilzun zure lanerako...

—Gauza handirik ez, begiratu.

Poltsa zabaldu eta erakutsi egingo dizkio: metal finezko tarjeta antzerako bat, bihurkin-sorta bat, latexko eskularruak, soka bat.

—Gure lanean komenigarria izaten da lasta handirik barik ibiltzea, esku trebeak izatea da garrantzitsuena; zamaz zenbat eta arinago bizkorrago ekingo diogu gure lanari, horrek batzuetan lan-lekutik ospa bizkorrago egitea esan nahi badu ere. Nik gehienbat errekiatutakoa gordetzeko darabilt poltsa.

Poltsan armarik ez daramala ikusita, lasaia-go geldituko da Mikel. Lehengo galderen eta oraingo miaketaren ostean, Josu bera ere trankilago.

Mahaitxoaren beheko apalean bidaiaria-agentzietan ematen duten halako liburuxka bati erreparatu dio Josuk. Hartu, orri-pasan hasi eta Vietnamiar dagokion orrialdean *post-ita* jarrita daukala ikusiko du.

—Zer, Vietnamera joateko asmotan ala? Neuri ere gustatuko litzaidake. Horixe da nire ametsetariko bat— hasperen eginez.

Mikelek ez dio erantzun. Ez diezaiola inork Vietnamgo konturik aipatu ere egin.

Aurrera doa denbora, baina arratsaldea oraindik luzea da. Ea zelan betetzen duten tar-tea pentsatuko du Mikelek, besteari bisitan etorritakoaren patxada antzematen dio eta.

Egongelatik sukaldea ikusten da. Sukaldean, hozkailua. Bertan litroko botila bat garagardo daukala gogoratuko du Mikelek. Ordu ona da berau edateko, botatako izerdia berdintzeko, tentsio-uneak igarota pixka bat erlaxatzeko.

—Hor hozkailuan botila bat garagardo daukat. Hartu edalontzi pare bat ere eta ekartzazu hona.

Han doa Josu, oso ona iritzi dio gonbiteari, ezin aproposagoa une horretarako. Egonge-

lan berriro, botila zabaldu, garagardoa edalontzietan isuri eta Mikeli hurreratuko dio berea.

—Egin dezagun topa!

Edalontziak kurioso-kurioso elkar jo eta topa egin dute, zeri topa esan barik.

Garagardoaz gozatzen aparretan daude bi-biak. Halako baten zera diotso Josuk:

—Ta, zer plan daukagu ba astebururako?

—Nire egoeran, egia esan, ezin dut plan handirik egin. Oraingo, plan bakarra, astelehenan, medikuarengana joatearena da.

—Trankil egon, neuk lagunduko dizut.





# Hiru sasibalada baxenabartar

## Sarrera

Gure herriko gertaera historikoetan oinarritu diren balada zaharrak baditugu. Tankera horretakoak dira, esaterako, “Bereterretxeren khantorea” edo Baztango “Urtsuako” balada. Balada horiek geuregeureak ditugu, bestetan aurkitzen ez ditugunak. Badira, bestaldetik, Europako tradizio baladistikoarekin bat datozen zenbait baladagai ere. Balada horiek Europako tradizioarekin bat egiten dugula erakusten digute. Badago, besteak beste direla, hirugarren sail bat niri izugarri bitxi eta harrigarri egiten zaidana. Hirugarren sail horretako euskal-baladak itzulpen hutsak dirudite. Itzulpen hutsak zenbaitetan, moldatuak eta goxatuak bestetan, eta are hanpatuak ere askotan. Itzulpen-balada hauek Iparraldean ematen dira, inoiz ere ez, guk dakigula, Hegoaldean, eta Frantziako baladak dituzte iturburu. Balada hauek, normalean, ez dute ahozko tradizioirik izaten. Iparraldeko kantutegietako orrialdeetan ikusten ditugu kopiaturik. Kantu gehienak, ia denak esango nuke, baxenabartarrak dira. Ez dugu ikusten Lapurdikorik eta are gutxiago Zuberoakorik. Balada hauen berri ere berandukoa da. Mila bederatzirehun eta berrogeita hamarreko hamarkadan eta hirurogeikoan agertzen dira lehen aldiz publikaturik, *Herria* asterokoan, *Gure Almanaka*-n eta *Gure Herria*-n. Balada hauek guztiak hemeretzigarren mende bukaerako kaiarretarik aldatuak dirudite<sup>1</sup>. Azken sail honen berri handirik ez dugu,

eta badira oraindik balada-liburuetan ere agertzen ez diren ale solte batzuk. Euskal balada alorrean orain arte egin diren lan guztiak estimatzekoak dira, zein bere neurrian, baina alor hau ez dugu, zorionez, agortu. Euskal baladen ahozko tradizioa agortu bada ere —nork kantatzen du tradizioz bere amaren edo amonaren edo nahi den asabaren eredurik?—, euskal azterketa onen premian gaude oraindik ere. Azterketa onen eta errespetuzkoen premian, gainera, bakoitzaren ahalegin eta ekarpenak saihestu gabe. Euskal Herriko aztertzaileez gain, beste lekuetako espezialisten beharretan ere segitzen dugu. Espezialista bat bakarra izentatzekotan Jesus Antonio Cid egingo nuke: esaten eta baieztatzen dituen kontuetan ez ezik, intuizioz iragartzen dituenetan ere bete-betea asmatzen duelako.

Guk geure lantxo honetan hiru euskal baladaren frantses ordainak ematen ahaleginduko gara. Edo bestela esan, frantsesezko eruedetatik, edo zehatzago nahi bada, eredu konkretu batetik itzulirik diruditenak. Diodan, azkenik, hiru euskal balada horietatik bat bakarra agertzen dela, guk dakigula, geure balada-bildumetan.

## Lehen balada harrigarria: *Ernauten kantua*

Balada hau ez dago zentsaturik, guk dakigula, inongo balada-zerrendatan ez eta orain arteko inon-

go balada-liburutan. Balada-gai askok izaten dituzten goitar edo jaun-andere gaztelutarren ezaugarriak ditu: zaldizkoa, printzesa, ezpata... Jauntasunari dagokion errespetu edo itzal onaren berri ere ematen da. Bostgarren ahapaldian, esaterako, hauxe dio Irma printzesa mehatxatuak: “*Jaun batek, ohorerik batre balinbadu, /buluzten ez du behar andre-rik behatu*”.

Badu ale honek baladek izan ohi dituzten argudio harrigarria eta odoltsua ere: hamabi neskabila (printzesa) hil dituen hiltzaile aurpegi-ederrak hamahirugarrena hil nahi du. Hamahirugarren honek, Irma printzesak, ordea, zalduna bera hiltzen du. Egitura bera ere baladena da, bete-betean. Lehen sarrera-ahapaldiari elkarrizketa-ahapaldiek jarraitzen diote. Gaia bera elkarrizketa indartsu eta zirrargarriz hornitu nahi da. Printzesa gose-tuak janaria eskatzen dionean, esaterako, “eskua gordinik jateko” erantzuten dio Ernautek; printzesa egarrituak edaria eskatzen dionean, “odola edateko erantzuten dio”. Urmael batera iristen direnean hamabi neskaren gorpuak ikusten dituzte hilik.

1

Ernaut bisaiaz baitzen ederrenetarik,  
Irma printzesa hartaz zen agradaturik.  
Ernautek ereman du, zaldian harturik,  
Urrun biziki urrun, bere jendetarik.

2

Bide-nabar printzesak erran du trixterik:  
—“Ernaut, gosetua niz: jan niro gogotik!”  
—“Irma, zure eskua jan-azu gordinik,  
Ez baituzu gargero izanen ogirik!”

3

Oihanerat heltzean printzesak beretik:  
—“Ernaut, egarri bainiz, baduzuia urik?”

—“Irma, zure odola edan-azu berik,  
Ez baituzu gargero edanen arnorik!”

4

“Hantxeko ur-malean hamabi andere  
Azken denbora hautan ithorik lo daude:  
Ez ditezen enoa lagun berri gabe,  
Hamahirugarrena zu izanen zire.”

5

Ur-malerat orduko, Ernautek manatu  
Printzesa gaixoari buluzteko prontu.  
—“Jaun batek, ohorerik batre balinbadu,  
buluzten ez du behar andre-rik behatu”.

6

“Ezar zure ezpata zangoen azpian  
Eta kapa beltz hori sudur-aintzinean!”  
Ernautek aurdiki du ezpata oin-pean  
Eta kapa beheiti begien parrean.

7

Irmak Ernaut hartu du eta besarkatu,  
Bai eta ur-malerat bet-betan botatu:  
—“Zaurte, arrain-aingirak, behar da ernatu  
Eta frikun-haragi hortarik alhatu.”

8

Ernaut erramu baten adarrari lotu,  
Nahiz bere burua nolazpeit salbatu,  
Printzesak berehala ezpata tiratu  
Eta erramu horren adarra pikatu.

9

“Irma, othoi, eskua heda dazadazu:  
Bihar senhar-emazte izanen gitutzu!”  
—“Ernaut, zazi zolarat, bakea indazu:  
Han ezkongai andre-rik askitto baduzu!”

—“Irma, uzten banuzu putzu zikin huntan, Nork zitu eremanen, sartzeko etxean?”

—“Zure zaldi xuria hor baitut menean, Harek ez nu galduko harako bidean.”

—“Ni gabe itzultzean etxekoen gana, nitaz zer diozute kondatuko, Irma?”

“Erranen dut zutarik dudala egina Nitarik hemen egin nahi zinuena!”

Hona aldatu dugun balada honez zer dakigu? Balada hau agertzen den iturria *Gure Almanaka* da, 1968 urtea, 46-47 or. Herri-kantak *Herria* zein *Gure Almanaka* aldizkarietan dituzten ezaugarria dakar: XXX. Baladaren gain-azprietan edo bi buruetan dator daukagun berri apurra. Bi buruak, gainera, bat datoz. Baladaren goikaldean *kantu zaharra* zehaztasuna dator, baladaren azpian edo beheko buruan, kaieraren iturriaren data: *1891-ko kopia*. Gainerako berririk ez dugu bat ere. Hizkerari dago-kionez, jatorria garbia du, baxenabartarra. Ez dirudi hala ere Baxenafarroako euskara zaharra denik, dataren bat jartzekotan kaierarena bera baino askoz lehenagokoa ez nuke emango: XIX mende bukaeratsukoa. Nekagarri litzateke baxenabartar euskara-ezaugarri guztiak hemen zerrendatzea. Ezaugarri guztietan, beharbada, ehun urtetik gorakoa ez dela azaltzen dutenak lirateke interesgarrienak. Hizkuntza alderdi hau, ordea, nire baxenabartar jakinduriaraz goragokoa da, inolaz ere. Dena dela, hitz salagarrietako bat *trixterik* da, bustidura hori mende eta erdikoa baita Lapurdiko eta batez ere Baxenabarreko euskaran. Baina utz dezadan kontu hau hurrengo baterako...

### **Erraplan atabala joiten dute herrian baladaren argitarapenak**

Balada honek ez du mixteriorik falta. Lehen aldiz, daten arauera, *Gure Herria* aldizkarian agertu zen, 1958ko urrian, 230-232 orrialdeetan. Artikulu egileak ez zuen bere izenik jarri, maistra ezezagun bat da inolaz ere, artikulua hondearean zehaztasun hau jartzen baitu: *Andere Errientsa*. Lehen Hezkuntzako edo primariako ikasle batek etxeko lan bezala eman zion balada bere frantsesezko itzulpen eta guzti. Hona daukagun xertxeladaxoak artikulugile ezezagunak emanda:

*Gauden gu! Amak, erakuts zuen haurreri zuek ukhan duzuan mintzaira aberatsa! Sekula ederragorik ez dezakezue eman.*

*Iduri zautzue behar bada, gibelatze pochi bat emaiten diotela eskolan! Ez da hori chuchen. Zenbat eskolier eskualdun garbi, bertzen heinean, orobat aintzinean, eskola handietan.*

*Bi mintzairetan erabilzeak lan hobea egin arazten diote eta beren gogoan zilha-arazten funtzez elhe bakotcharen mamia.*

*Voici un travail, très moyen d'ailleurs, donné par un élève de fin d'études primaires à la lecture des vers parus dans "Herria" sous le titre "Erranplanplan".*

Noiz argitara zen *Herria* astekariko lana? 1959ko, 443 zenbakian, laugarren aldean. Nahiz datak argitaratzeko lehentasuna *Gure Herria*-ri ematen dioten, *Herria* astekarian agertu zen lehenago. Honela litzateke kontua: *Herria* astekariko kantua 1959ko urtarrilean argitara zen eta *Gure Herria*-koa geroago, nahiz 1958ko data izan. Zergatik? *Herria* izan zelako iturria eta aldizkari osan ale bakarra argitara eman zelako. *Gure Herria* aldizkari orritsua argitaratzen lan handiagoa izan-

go zuten eta horrexegatik agertuko zuten 1959 urtean.

Hirugarren aldiz ere eman zen argitara *Gure Almanaka*-n, 1980an, 19 orrialdean. Lehen bi testuek, *Herria* eta *Gure Herria*-koek, bat egiten dute. *Gure Almanaka*-ko testua bera izan arren, aldaera ortografikoekin argitara zen. Azken hau testu zaharagoetako ortografia aldaturik eta txarreraturik ikusten dugu, behin baino gehiagotan. Testurik fidelena, beraz horretatik, *Herria*-koa dugu, testu iturburua delako inolako zalantzarik gabe. Antonio Zavalak bere *Euskal erromantzeak Romancero vasco* lanean, 65-66 or., lehen aldiz sartu zuen kantu hau baladen sailean<sup>2</sup>. Antonio Zavalak, ordea, ez zuen bi lehen iturri zaharretatik transkribatu *Gure Almanaka*-kotik baino. Guk geure lan honetarako *Herria*-koa transkribatuko dugu:

## ERRANPLANPLAN

### I

Erranplanplan atabala joiten dute herrian.  
Jaun kondeak ba othe du hatz berririk buruan?

### II

Manatu du andereak haren gana bil ditene:  
Bat ikusi dueneko, hartaz duzu amosten.

### III

—“Salagoiti, badakika nor den horgo panpina?”  
—“Jaun kondea, hori duzu ene esposlaguna.”

### IV

“Nik ez diat hik bezala hain emazte ederrik:  
Utz bahezat, zer fortuna andre horrek eta hik!”

### V

—“Jauna, konde ez bazine, jal nezake ezpata:  
Nausi baten aintzinean nola egin dakita?”

### VI

—“Salagoiti, ehadila gisa hortan hasarra!  
Baroin berri eginen hut, eskualdeko bakarra!”

### VII

—“Marieder, bezti zite ahal bezain ederki:  
Urhe-joiak eta denak usain onak ausarki...”

### VIII

Marieder, ikus arte adio ene izarra!  
Jauregira behar duzu Kondearen manura...”

### IX

Kondesaren kara tzarra lore berri berechten:  
Gobernanta berriari baitiozka emaiten.

### X

—“Marieder, Marieder, ez har othoi buketa!”  
Kondearen oihu mina debaldetan izan da!

### XI

Marieder erori da alditchartuz bezala:  
Jaungoikoak hil gaichoa urrikari duela.

### XII

—Salagoiti, orhoit hadi hire tratu zikinaz:  
Jaun kondeak eta biek kordokatu arimaz<sup>3</sup>.

## **Zitadela gora duxu baladaren gainean**

Kantu honek badu neuretzat ere bere istorioa. Behin Donibane Garaziko Hegittoa basetxera hurbildu ginen, orain dela lauzpabost urte, Bizkaiko lagun-talde bat. Hegittoa basetxea Garaziko murrueztatik ate dago, gaintxo batean, Errobi ibaitik oso hurbil. Hantxe bizi zen Piarres Duny Petre (1914-2005) eta haren emaztea. *Heguitoa*, gainera, Piarres Duny Petrearen etxea ez ezik, idazlearen izengoitia ere bazen “Piarres Heguitoa”. Joan ginen arratsalde

hartan, ixtorio konda zegoela, gure baxenabartar idazleari emazteak Donibane Garazin bildutako khantore zoragarri baten gainean hitz egin zion, emakume bizargin eta soldadu baten maitemina kondatzen zuena... Zitadeladun leku eder bati nola ez egokitu khantore eder bat? Khantorea, guk uler-  
tu genuenez, kantatzaile baten ezpainetatik bildua zen, ez inongo kaier edo argitarapenetan. Khantorea, geroago ikusi dudanez, *Herria* aldizkarian, 1967 urtean, 876 zenbakian argitara zen. Khantore honen gainean, askozaz geroago, lantto bat ikusi nuen Ramon Zulaikarena *Oihenart Cuadernos de Lengua y Literatura*, 2000. urtea, 18. zenbakia, 133-137 or. Hona Ramon Zulaikaren zehaztasuna:

*“De su puño y letra, D. Pedro Duny-Pétre me proporcionó, junto al texto de “Zitadela gora duxu” la siguiente explicación: Cette chanson date sans doute d’avant la Révolution française, car à cette époque seul les hommes d’origine noble pourraient être officiers dans l’armée. Il s’agit ici d’un jeune capitain qui vivait du château de Luxe”.*

Behin honetaz gero, egin ditzagun galdera eta baieztapen batzuk. Lafittek *Herria* aldizkarian, argitaratzen zituen herri kantu zahar eta khantoreak *Kanta chaharra* izenburupean egiten zituen. Kanta zahar hori, herri-kanta bazen, azkenean XXX ezaugarriarekin argitaratzen zen. Ezaugarri horrek kanta herritarra, anonimoa, autoregabea zela adierazteko da. Lafittek, beraz, nola argitaratu zuen P. Duny Petrek emanik, edo, bestela, kaier batetik edo nonbaitetik transkribaturik? Gauza segurua da Duny Petrerena herritarren ezpainetatik bildu zuela, niri halaxe adierazi zidalako. Baina oraingoz utzi dezagun kontua honetan eta eman dezagun kanta zaharra:

## I

Zitadela gora duxu Donibane Garazin:  
etxakin zonbat soldado han gure zain dagozin!

## II

Garaziko aire hautak bizarra pusarazten:  
soldadoak freskatzerat usu hirirat jausten.

## III

Guzien bizar-egile neska bat, Janamari:  
presuna seriosa zela entzun dixit orori.

## IV

Kapitain bat sartu duxu barbersaren botigan:  
—anderia, nahi nuke jarri horgo kadiran.

## V

—Bizarra ala ilhea, zer behar dut edeki?  
—Egun bizarra aski dut, egidazu polliki.

## VI

Kapitaina jarri duxu bisaiaz mirailari:  
hari so, nabala pasten horra hor Janamari.

## VII

Matela salboinaturik kapitain gazteari,  
karra-karra hasi duxu bere nabal-lanari.

## VIII

Bet betan ikara batek hartua du barbersa:  
bisaia zuri-zuria, ageri du ez ontsa!

## IX

Ez daki neska gaixoak begiak nora makur:  
—Zer zira ba, anderia, ene galoinen beldur?

## X

—Ez, jauna, ez nuzu beldur soldadoen galoinen,  
are gutiago segur kapitain prestu baten.

XI		XV
—Ez duzu bada iduri hanbat zuhauren jabe:		Bizarra hortan utzirik, elgar aditu zuten
ez da nihor holakatzen deus arrazoinik gabe!		Lukuzerat ezkontzeko biak lehen bai lehen.
XII		XVI
—Arrazoinak batuzketxu erraiten ez direnak;		Kapitainak hartu zuen Janamari zaldian:
othoi barka dezadala ene jaun kapitainak.		Lukuzen egin dukete bizi on jauregian.
XIII		XVII
—Zer nuzu ala, gaixoa, ni poxiño bat maite?		Zidadelan daudenentzat, neskatxetan segurik,
—Poxiño hori zonbat den aise aitor ez daite.		ez da bizar egilerik Janamariz geroztik.
XIV		XVIII
—Haurra, nahi zindukeia enekilan ezkondu?		Lukuztarrak zonbeit bertsu baitzituen merezi,
—Zendako ez, zuk enekin hala nahi bazindu?		kantu huntan orhoitzeko baditu hemezortzi.

***Ernauten kantua, Zitadela gora duxu eta Erranplanplan baladak itzulpen ondo moldatuak dira***

Besteren iritziak geure egin nahi ditugu puntu honetan. Hona iritzia laburbildurik: badira Iparraldeko euskal zenbait balada Frantziako ereduetatik oso hurbil daudenak. Ideia hau lehen aldiz formulatu zuena Aita Donostia izan zen. Gerora adibide eta zehaztasun handiagoz Jesus Antonio Cid eta Jon Juaristi. Guk artikulua honetara ekarri ditugun hirurek ere itzulpen bete-beteak dirudite. Lehena *Renaut le tueur de femmes* baladarena. Hona eredu bat:

1

Renaud a de si grans appas [qu’]il a charmé de si grans appas  
L’a bien emmenée à sept lieu’s, sans qu’[il] lui dit un mot ou deus.

2

Quand sont venus à mi-chemin: “mon Dieu! Renaud, que j’ai grand faim!”  
—“Mangez, la belle, votre main; Car plus ne mangerez de pain.”

3

Quand son venus au bord de bois: “Moi Dieu! Renaud, que j’ai grand soif!”  
“Buvez, la belle, votre sang; Car plus ne boirez de vin blanc.”

4

“Il y a là-bas un vivier où treize dames sont noyé’s.  
Treize dames y sont noyé’s, la quatorzième vous serez.”

5

Quand sont venus près du vivier, lui dit de se désabiller.  
—“N’est pas affaire aux chevaliers de voir femmes déshabiller.

6

“Mets ton épé’ [des]sous tes piés [et] ton manteau devant ton nez.”  
Mît son épé’ [des]sous ses piés et son manteau devant son nez.

7

La belle l’a pris, embrassé, dans le vivier el l’a jeté:  
“Venez, anguill’s, venez, poissons, manger la chair de ce larron!”

8

Renaud voulut se rattraper a une branche de laurier.  
La belle tire son épé, coupe la branche de laurier.

9

Belle, prêtez-moi votre main, je vous épouserai demain!”  
—“Va-t’en, Renaud, va-t’en au fond épouser les dammes qu’y sont!”

10

—“Belle, qui vous remmènera, si me laissez dans ce lieu-la?”  
—“Ce sera ton cheval grison, “qui suit fort bien le postillon.”

11

—“Belle, que diront vos parens, quand vous verront sans votre amant?”  
—“Leur dirai que j’ai fait de toi ce que voulois faire de moi!”



Nekez aurki daiteke antzekotasun eta are berdintasun handiagorik bi baladen artean. Euskarazkoak hitzez hitz eta ahapaldiz ahapaldi gauza bera esaten du. Protagonistaren izenean ere bat datoz, frantsesez *Renaud* dena euskaraz *Ernaut* da. Ia desberdintasun bakartxo zentzuetan dago. Euskaraz hamahirugarrena egiten du printzesak, frantsesezkoan hamaulaugarrena. Ahapaldiak berak dira: bietan hamaika. Ahapaldiz ahapaldiko itzulpena betebetekoa da. Guk hemen leheneko bostak iruzkinduko ditugu, gainerako seiak ere begi bistakoak dira...

1—*Renaud a de si grans appas/ [qu'il] a charmé de si grans appas /L'a bien emmenée à sept lieu's,/sans qu'[il] lui dit un mot ou deus.* Hau da, ene iduriko, ahapaldi guztietan desberdinena. Euskaraz printzesaren izen eta guzti ematen da. Frantsesez urruntasuna zazpi lekoatan neurtzen da. Euskaraz ez: *Ernaut* bisaiaz baitzen *ederrenetarik,/ Irma printzesa hartaz zen agradaturik./ Ernautek ereman du, zaldian harturik,/ Urrun biziki urrun, bere jendetarik.*

2—*Quand sont venus à mi-chemin:/ "mon Dieu! Renaud, que j'ai grand faim!" / —"Mangez, la belle, votre main;/ Car plus ne mangerez de pain."* Ahapaldi honetan bertso-lerroak ere bat datoz. Deiki edo deigarriak ere bat datoz. Irudiekin ere berdin: *Bide-nabar printzesak erran du trixterik:/ —"Ernaut, gosetua niz: jan niro gogotik!" / —"Irma, zure eskua jan-azu gordinik,/ Ez baituzu gargero izanen ogirik!"*

3—*Quand son venus au bord de bois:/ "Moi Dieu! Renaud, que j'ai grand soif!" / — "Buvez, la belle, votre sang;/ Car plus ne boirez de vin blanc."* Hemen ere bateratasun harrigarria: bertso-lerro bertso-lerro ez ezik, hitzez hitzeko itzulpena ematen du: *Oihanerat heltzean printzesak beretik:/ —"Ernaut, egarri bainiz, baduzuia urik?/ —"Irma, zure odola edan-azu berik,/ Ez baituzu gargero edanen arnorik!"*

4—*"Il y a là-bas un vivier / où treize dames sont noyé's./ Treize dames y sont noyé's,/ la quatorzième vous serez."* Ahapaldi honetako berdintasuna ikaragarria izan arren zertxobait desberdina da. Frantsesezko bihurkia ez da euskaraz ematen. Zenbakiak batean 13/14 dira, eta, bestean, 12/13. Euskaraz apurren bat belaxkatu ez ote da egiten? Frantsesez "itorik daudenak", euskaraz "ithorik lo daude": *"Hantxeko ur-malean hamabi andere/ Azken denbora hautan ithorik lo daude:/ Ez ditezen enoa lagun berri gabe,/ Hamahirugarrena zu izanen zire."*

5— *Quand sont venus près du vivier,/ lui dit de se désabiller./ —"N'est pas affaire aux chevaliers/ de voir femmes déshabiller.* Hemen ere harrigarriki berdin-berdina:—*Ur-malerat orduko, Ernautek manatu/ Printzesa gaixoari buluzteko prontu./ —"Jaun batek, ohorerik batre balinbadu,/ buluzten ez du behar andrearik behatu.*

### ***La marquise empoisonnée* baladaren bateratasunak**

Atal honetan ere, aurrekoan bezalaxe, gure bigarren euskal baladaren frantsesezko ordaina aldatuko dugu. Balada hori batez ere *La marquise empoisonnée* bezala ezaguna da. Ez gara arituko, aurreko

atalean bezalaxe, berdintasun eta bateratasun begi-  
bistakoak zerrendatzen. Lan hori erraz baino erra-  
zagoa da bi ereduak emanez gero. Hona balada  
(Georges Doncieux *Le Romancéro populaire de la*  
*France*, Paris (2) 1904, 295-298 or.):

1

Quand le Roi entra dans la cour pour saluer ces dames,  
La première qu'il salua, el a ravi son âme.

2

Le Roi demanda au Marquis: "A qui est cette dame?"  
Le Marquis lui a répondu: "Sire Roi, c'est ma femme."

3

—"Marquis, t'es plus heureux qu'un roi, d'avoir femme si belle.  
Si tu voulais, j'aurois l'honneur de coucher avec elle."

4

—"Sire, vous avez tout pouvoir, tout pouvoir et puissance;  
Mais si vous n'étiez pas le Roi, j'en aurois ma vengeance!"

5

—"Marquis, ne te fâche donc pas, t'auras ta récompense:  
je te ferai dans mes armé's beau maréchal de France."

6

—"Adieu, m'amie, adieu, mon coeur, adieu mon espérance!  
Puisqu'il te faut servir le Roi, séparons-nous d'ensemble."

7

Le Roi l'a prise par la main, l'a menée en sa chambre.  
La belle, en montant les degrés, a voulu se défendre.

8

"Marquise, ne pleurez pas tant! Je vous ferai princesse,  
De tout mon or et mon argent vous serez la maîtresse."

La Reine lui fit un bouquet de tout fleurs jolies,  
Et la senteur de ce bouquet fit mourir la Marquise.”

Le Roi lui fit faire un tombeau tout en fer de Venise,  
Sur sa tombe mit un écrit: “Adieu, belle Marquise!”<sup>4</sup>

Oraingoan ere, aurrekoan bezalaxe, gure euskal ereduaren zenbait ahapaldik frantsesaren itzulpen zuzen-zuzena dirudite. Hona, esaterako, ekarri dugun eredu honetako zenbait ahapaldi:

1—*Quand le Roi entra dans la cour/ pour saluer ces dames,/ La première qu’il salua, el a ravi son âme.* Manatu du andereak/ haren gana bil ditene:/ Bat ikusi dueneko,/ hartaz duzu amosten.

2—*Le Roi demanda au Marquis: “A qui est cette dame?”/ Le Marquis lui a répondu: “Sire Roi, c’est ma femme.”* 3—Salagoiti, badakika/ nor den horgo panpina?/ —Jaun kondea, hori duzu/ ene espos laguna.

4—*“Sire, vous avez tout pouvoir,/ tout pouvoir et puissance;/ Mais si vous n’étiez pas le Roi,/ j’en aurois ma vengeance!”* 5—Jauna, konde ez bazine/ jal nezake ezpata:/ nausi baten aintzinean/ nola egin dakita?

5—*“Marquis, ne te fâche donc pas,/ t’auras ta récompense:/ je te ferai dans mes armé’s/ beau maréchal de France.”* 6—Salagoiti, ehadila/ gisa hortan hasarra;/ baroin berri egien hut/ eskualdeko bakarra.

Bateratasunak askoz gehiago dira eta hemen denak ondoz ondo eta begiz begi jartzea alferlan hutsa litzateke. Lehen baladako frantses iturri bat eman dugu orain arte. Hona “La belle barbière” (Georges Doncieux *Le Romancéro populaire de la France*, Paris (2) 1904, 254-257 or.) baladaren frantses eredu bat; baina kontu hau utzi dezagun hurrengo atalerako.

### *La belle barbière* baladaren bateratasunak

Ez gaitezen itzulinguruka abiatu eta ekarri dezagun mailua iltzera. Eman dezagun Doncieux-ek dakarren balada eredia orrialde hauetara. Hona besterik gabe, hemen:

1

Dans Paris y a une barbière, qui est plus belle que le jour,  
Qui est plus belle que le jour.

2

Ce sont trois jeunes gentilshommes qui voudroient lu faire l'amour.

3

Ils se disent les uns aus autres: "Las! comment lui parlerons-nous?"

4

—"Il faut lui donner une aubade, demain matin au point du jour."

5

Aussitôt l'aubade jouée, la barbière ouvre ses yeux dous,

6

El met la tête à la fenêtre: "Beaux messieurs, que demandez-vous?"

7

—"Bien le bonjour, belle barbière, la barbe, la nous feriez-vous?"

8

—"Oui-da! l'ai faite au roi d'Espagne, qui valoit bien autant que vous.

9

Entrez, entrez, mes gentilshommes, mes rasoirs sont tout prêts pour vous."

10

Si el apelle sa servante: "Marguerite, allons, levez-vous!"

11

Apportez-moi mon beau plat d'ore et mes rasoirs qui sont autour,

12

Aussi ma joli' serviette, qui est pliée au pli d'amour."

13

Le premier que rase la belle, trois fois a changé de coulour.

14

"Sont-ce mes rasoirs qui vous blessent? monsieur, que ne le dites-vous?

15

—"Ce ne sont pas vos rasoirs, belle, c'est que je songe à vos amours."

16

—Ah! mes amours, mes amourettes, monsieur, els ne sont pas pour vous:

17

Els sont embarqué's sur la Saône, qui vont la nuit comme le jour.

Hona baladaren gai nagusia euskaraz laburbildurik:

Eredu honetan hiru gaztek kortejatu nahi dute Parisko emakume bizargin polit bat. Argisentian goizkanta edo aubada bat kantatu nahi diote emakume honi. Egunsentian, goizkanta entzuten duenean leihora atera eta zer nahi duten galdetzen die emakume bizarginak. Gazteen erantzuna: —Bizarra egingo zeniguke? Emakumearen erantzuna: —Frantziako erregeari egin badiot, nola ez egingo zuei? Sar, sar nire bizar-tresnak prest ditut! Urrezko erretilua, bizar-tresnak eta amoltsuki tolestutako dafaila hurbiltzen ditueanean hasten da bizarra egiten lehen gazteari. Lehen mutil gaztea, ordea, erabat amorosten edo maitemintzen da. Aurpegiaren kolorea ere aldatu egiten zaio. Orduan emakumeak ea zauritzen ote duen galdetzen dio. Erantzuna da

hartaz, bizargileaz maitemindu dela lehen gaztea. Bizarginak hala ere ez du maitasunik onartzen bere maitea Senako untzizain bat delako. Azken ahapaldian untzizaina eta bizargilea untziratu egiten dira Senan<sup>5</sup>.

Behin honeraz gero, garbi ikusten ditugu bateratasunak. Gure euskal ereduan maitemintzen dena emakume bizargina da. Frantseseko ereduan, ordea, lehen mutil gaztea da maitemintzen erortzen dena. Kasu bietan aurpegiaren kolorea aldatuz konturatzten da bestea... Euskarazkoan *bisaia zuri zuria* jartzen zaio, frantsesezkoan *hiru aldiz aldatzen zaio kolorea*. Bateratasun eta desberdintasun guztiak bistakoak direnez gero ez ditugu hemen zerrendatuko... Beharbada beste zerbaiti eman beharko genioke garrantzia. Bizarra moztearen azpian ez ote da sinbologia nahikoa argi bat ezkututzen? Bizarra

moztea ez ote da belarra ebakitzearen antzekoa sinbologia mailan?

### **Azken ondorioa bestaldeko sasibalada edo balada itzulpenez**

Jesus Antonio Cidek bestetan ere agertutako iritzia borobiltzen du “Romancero hispánico y balada vasca”<sup>6</sup> lanean. Hona iritzia laburbildurik:

En un estudio global sobre la tradición vasca habrá de tenerse en cuenta, al menos como hipótesis, la existencia en los siglos XVIII y XIX, de una especie de moderna “juglaría” (tan distante del *bertsolarismo* como de la poesía culta o semiculta que por entonces se cultiva), que actúa en la parte francesa del país y no tiene correspondencia en las provincias meridionales. Es evidente que algunos cantores, y no simplemente transmisores “pasivos”, tomaron como fuente baladas francesas de muy distinto tipo y las adaptan en euskera en lo que a veces parecen traducciones literales, pero realizadas con apreciable maestría. Ejemplos a la vista son “Hiru kapitainak” o “Judu herratua”, que derivan de forma directa de originales franceses bien conocidos.

Iritzi honek uste baino oinarri sendoagoak ditu. Jon Juaristik<sup>7</sup> ere bere egiten du, besteak beste, gure euskal balada-munduan behin eta berriro frogari gehiago eta gehiago agertzen direlako. J. A. Cidek ematen dituen adibideei mordo handi bateko aleak erants dakizkioke. Guk artikulu honetan bi adibide berri ekarri nahi izan ditugu. Baina zertxobait aurrera eginez, nolakoak dira euskal balada itzulpenak? Lehenengo eta behin oso euskara dotorean eginak dira. Cidek eta Juaristik ondo laburbiltzen dute: maisutasun handiz eta nabariz eginak dira. Euskara kontuan mila zehaztasun eman daitzke. Tratamendua oso zaindua da. “Erranplanplan”-ean Jaun kondeak Salagoitiri “hika” egiten

dio, Salagoitik, ordea, bera baino maila goragokoari “zuka”. “Zitadela gora duxu” ereduari, narratzaileak xuka egiten du eta bizarginak eta kapitainak “xuka”. *Zitadela gora duxu* formula, gainera, beste khantore batzuetan ere agertzen da...

Zer euskara eredu erabiltzen dute? Baxenafarroako euskaran dira nik ezagutzen ditudan guztiak. “Ura isuririk”, “Arrats batez Yolanda” gure oraingo biak “Zitadela gora duxu”, “Erranplanplan”... “Banbruxeneko nausia”, “Andere esposa, beha zure ama nigarrez”... Hemengo zenbait, gainera, ausartuko nintzateke esatera ia esku berak itzuliak direla ematen dutela... Ia kaier berekoak direla... “Andere esposa, beha zaude nigarrez” eta “Erranplanplan”, “Banbruxeneko nausia”, “Ura ixuririk sorginen bidean”.

Itxura guztiak direnez, oso balada ezagunak dira Frantziako balada-eremuan Doncieux-ren liburuan baitatuz ia gehienak. Horrek ez du esan nahi, ezta zeharka ere, Doncieux-ren liburutik itzuliak direnik. Doncieux-ren liburua 1904an argitaratua da, gure lan honetako lehena “Ernauten kantua” 1891ko kaier batetik aterea. Baladak ondo euskaturik ezezik, ondo euskaldundurik ere badaude. Zergaitik diogu euskaldundurik? Euskal eremura ondo baino hobeto moldaturik daudelako. Nola ikusten dugu hori? Eman lantto honetan sartu ditugun bi adibideak. Lehenean, “Erranplanplan”-ean, agertzen den zalduna *Salagoiti* da. Salagoiti euskal deitura bat dugu noble kutsukoa gainera. Halaxe izan behar zuen jaun handiak baititugu baladako protagonistak. Bigarrenean pertsonaia izen-deituretan baino lekuetan ikusten dugu euskaldundua. Gertaera Garaziko herrian dago lekutua. Donibane Garaziko zitadela gertatua da kontua. Maitemindu ondoren Lukuzera doaz neska-mutilak. Oraindik kiderik aurkitu ez diodan balada baten —“Mariansants Bidartekoa”, *Gure Almanaka*, 1974, 42-43 or.) hasera honela dator:

Marisants Bidartekoa neska bat zen xarmanta:  
Ezagutu geroztikan hura nola ez maíta?  
Ganxune Donibandarra Urruñan ikusi-ta  
Hartzat agradaturikan goxoz nola ez konta?

Amodioz kantatzeak ez zion irauñ asko  
Gizon-gaia hartu zuten mariñel izaiteko,  
Itsasoan zazpi urte urrun iragaiteko:  
Marisantsek kolpe horri dio ihardokiko.

Herri-zehaztasun hauek ez ote dira gehiegizkoak? Gure tradiziozko baladetan ez dugu inoiz horrelakorik ikusten. Oin-etxeak edo jatorri etxeak aipatzen dira baina Euskal Herriko herririk inoiz ere ez... Ez ote da hori estetika berezi bati dagokiona? Ez ote da susmagarria?

Baina ez nadin gal haritik eta noan berriro “Zitadela gora duzu” kontapoesiara. Herri-izen garazitarak ez ezik, Garaziko herriko hizkera ere badator. Emile Larre adiskideak Garaziko Herria —halaxe zioen Detxeparek—, Lukuze eta abar, xukariak direla diost, hots, xuka hitz egiten dutenak. Tradiziozko baladak, belaunaldiz belaunaldi euskaldunen aho-bihotzetan ibili direnak, halako odol bizia, freskotasuna, basatitasun suharra nabaria, heriozko kolpea antzematen da beren estiloan. Pieza bizi, indartsu, zoragarriak dira. Herriak gizaldiz gizaldi eman dien genialtasuna dute, hezur-haragi herritarra dute. Balada itzulpenak euskara onean daude baina ez dute euskara biziaren indarririk. Ez diet antzematen freskotasunik, benetasunik. Bestela esan, biguin eta belaxkak dira.

Itzulpen zuzenak diruditen hauei guk *sasibaladak* deituko diegu. Zergatik? Oso berandukoak direlako gehienak, nik uste XIX mendekoak gehiago diruditela XVIIIkoak baino, eta XIXkoak, askotan berandukoak. Gehienak, gainera, ez dute tradizio ahozkorik izan: kaier zaharretatik kopiatuak dira. “Arrosa xuriaren azpian” eta besteren bat ken-

duz gero, ez dute ahozko tradiziorik izan. Salbuespen bat “Zitadela gora duxu” izan daiteke. P. Duny Petrek zitadela inguruan bildu zuen, Donibane Garazin, eta itxura guztiak direnez, bertso-paper batean du oinarria. Hau da lehen aldia —nik ezagutzen dudala, jakina—, balada bat bertso-paper batean zabaltzen dena. Horren froga nabarmena da azken ahapaldia: *Lukuztarrak zonbeit bertsu /baitzituen merezi, /kantu huntan orhoitzeko/ baditu hemezortzi*<sup>8</sup>. Sasibaladetan agertzen diren pertsonaizenak ere ez dira askotan tradizio zaharrekoak: Marieder, Janamari. Baladetako euskarak berak ere, jakina, ez du zahar kutsurik.

Sasibalada hauen frantsesezko ereduak aurkitu ondoren ondorio batera ailegatzen gara gehienetan. Euskal sasibaladak ahapaldi gehiago izan ohi ditu bildu den frantseseko eredurik beteenak edo luzeenak baino. Euskal sasibaladak luzeegiak dira, ahapaldi sorta luzea dute herri-baladak izateko. Eman ditzagun, kasurako, gure lantoko bi baladak edo “Banbruxeneko nausia” edo beste edozein. Sasibalada gehienetan handikiak agertzen dira, gure euskal balada tradiziozkoetan bezalaxe, gerra-gizonak, baroinak, kapitainak... Lekuak ere halakoxeak dira: jauregiak, sala ederrak. Gure oraingo bi baladetan Lukuzeko jauregira doaz bizitzera senar-emazte edo neska-mutilak. Lehen baladan jaun kondearen jauregira joan behar du Salagoitiren emazte politikak.

Sasibalada hauek paperetik paperera aldatuak dira, itxurak direnez. Ez dira inoiz ere, kasu batean edo bestean izan ez bada, tradizionalizatu. Badirudi ez direla ia inoiz herriaren ezpainetan hezurramitu. Bestela esan, ez dira inoiz tradizionalizatu, popularizatu, edo euskaraz esatera, ez dira inoiz “ahozkotu”. Zer ondorio ateratzen dugu guzti honetatik? Sasibaladek ez dute inoiz aldaerarik. Hitz batez laburbildurik, sasibalada betiere bakarra da, autorekun poema idatzia bezalaxe. “Ura isuririk sorginen bidean” edo gure lan honetako biek ez

dute aldaera bakarria baino. Balada hauetako asko apokrifoa direla esateko arrazoiak falta ditudala esatera ausartuko nintzateke. Sasibalada guzti hauek Lafittek argitaratuak dira, batean ez bada bestean. Azken giltza, beraz, Lafittek zeukan. Edo berak eginak dira edo berak bakarrik ezagutzen zituen Baxenafarroako kaier batekoak edo batzuetakoak... Orain arte ezagutzen ditugun sasibalada gehienak, ia guztiak ez esatearren, mailu berak joak dirudite. Esku berak eginak dirudite, egile bakarren semeak dirudite. Nekez ikusten da talde bat. Euskara eredu bera eta luma beraren sorkariak edo moldeak dirudite.

Frantses baladak badira ere sasibalada hauen oinarri nagusi, kasu batean edo bestean euskal balada ere izan daiteke oinarri. “Anaiari gaztigatu nion” balada sasikoan, guk aldizkari honetan aurreko artikulua batean argitaratu, Nafarroako euskal balada batean oinarritua da balada-idazlea. Azken frogaren indargarri, badago besterik ere. Sasibalada hauen azken ahalaldian ikasikizun edo moraleja bat agertu ohi da. Delako irakatsi horri epitimio ere esan ohi zaio. Halaxe deitzen dio Carlos García Gualak alegien bukaeretan ematen den azken irakatsiari<sup>9</sup>. Sasibaladetan, esan beharrik ez dago, sarri agertu ohi da epitimio edo irakatsia. Gure oraingo “Erramplanplan” horretan, bestetan bezain argiro ez bada ere :—*Salagoiti, orhoi hadi/hire tratu zikinaz:/ jaun kondeak eta biek kordokatu arimaz*. Delako azken irakaspen hori ez da, noski, bil-tzaileak edo argitaratzaileak erantsia, sasibaladak duena baino. “Banbruxeneko nausiak”: *Oraiko huntan hargatik, / arrosa ta klabedin,/ behi bazterketaria/ akuluak zentzatu din*. “Arrats batez Yolanda”: *Oi zer alegrantzia, jeiki berehala! / Senarrari ate idek dadiela!/ Etxean zoin den goxo emazte fidela!* Direlako epitimio hauek hain dira askotan apezzen moral kutsu kristaukoak non peredikuaren

azken hitza diruditen inoiz edo behin. Diogunaren adibiderik argiena Doña Tomasa baladan ikusten dugu. Hona azken ahalaldia: *Biharamun goizean bi gorputz elizan:/Nehork ez jakin xuxen zer zen nunbait izan./ Jainko Jaunak badaki zoin trixte gabiltzan./ Gauden Aita amultsu onaren peskizan*.

Epitimio honek, azken bukaera moralizante honek, apaiz-kutsu handiegia ez ote du? Gorago esan dugun elizgizon batek edo bestek ez ote dira moldatuak izan? Jesus Antonio Cid-ek eta Jon Juaristik proposatzen zuten juglar taldea baino askoz ideia baldarragoa da, miragarritasun kutsurik gabekoa, nolazbait esan. Modu honetara, sasibaladen idazgaraia ere askoz oraintsuagokoa izango litzateke: XIX mende bukaera edo are XX mende hasera.

Esan gabe doa oker egoteko arriskuan nagoela. Baieztapen hauek neure-neureak dira, oker zein zuzen egon. Hala ere, esan dezadan azkenik, ondo hausnartuak direla, eta ez, inolaz ere, zerutikako argialdi baten ondorioz asmatuak. Ez nau klaribidentziaren tximista zorrotzak argitu, inondik inora ere. Logikaren ibilbidearen pausu txikiak eman ondoren jauzi handiago bat egitera ausartu naiz, besterik gabe. Iritzi hauek, beraz, kanpotar espezialisten esku uzten ditut, eta, nola ez, irakurle saiatuaren gogoetagai. Argia, bestalde, oraindik agergerai edo argitaragai dauden eskuidatzietan dagoke, neurri handi batean.

## OHARRAK

<sup>1</sup> Zenbaitetan hala esaten da. Kaierraren data eta guzti, inoiz edo beste.

<sup>2</sup> Antonio Zavalak aldaketa gutxi egin ditu, esan dugunez, *Gure Almanaka*-ko eredutik. Puntuazioa aldatu du. *Mari eder* emaztearen izena *Mari-Eder* bihurtu... Badago okerren bat edo beste. Eredu guztietako *manatu* aditza *manadu* jarri du.



<sup>3</sup> Ahapaldi bakoitza lau lerrotan tolestu beharrean bi lerro nagusitan egin dugu. Ez dago esan beharrik *gaixoa* eta *alditchartu* jarri dugula. Berdin izango litzateke, jakina, gaurko grafiaz *gaixoa* eta *alditxartu* jarri bagenu. Testuan egin dugun aldaera bakarra *espos lagun* bereiz dagoena batera idaztea izan da: *esposlagun*. Antonio Zavalaren testuan *hut* adizkia agertu beharrean *haut* ikusten dugu, halaxe datorrelako *Gure Almanaka*-ko ereduari. *Orhoit, othe* eta horiek, *oroit* eta *ote* jartzen ditu. Lehen ahapaldian datoz zuzenketa eta desberdintasunik handienak. *Herria: Erranplanplan atabala / joiten dute herrian. / Jaun kondeak ba othe du/ hatz berririk buruan? Gure Almanaka: Erranplanplan! Atabala/ joiten dute herrian. / Jaun kondeak ba te du/ hatz berririk buruan? Antonio Zavalak: Erranplanplan atabala/ joiten dute herrian;/ jaun kondeak bai ote du/ hatz berririk buruan?*

<sup>4</sup> Honelaxe dio Doncieux-k: Cette chanson anecdotique a trait aux amours d'un roi de France, et, vu la langue qui ne saurait être sensiblement plus vieille que le XVII<sup>e</sup> siècle, d'un roi Bourbon. L'on ne peut hésiter ici qu'entre deux monarques, dont le galaneries furent pareillement fameuses: Henri IV et Louis XIV; et entre deux favorites: Gabrielle d'Estrées, faite marquise de Monceaux et qu'on avait coutume à la cour d'appeler simplement "La Marquise", et Mme de Montespan, marquise du chef de son mari.

<sup>5</sup> Hor agertzen den ibaia *Saône* delakoa Sena dela deritzagu. Hona George Doncieux-k ematen duen azalpena: "*La Belle Barbière*, importée en Piémont et en Catalogne, est aussi adventice dans les pays d'oc (Le versions *Vorey, Quercy* s'il chantent en français, les autres son altérées). Il reste à déterminer, en oïl, son terroir natal. La mention de Paris au v. 1 ne suffit pas à démontrer une origine parisienne, d'ailleurs exclue par la forme *colour*=couleur (v. 13); quant aux deux régions opposées où ce phonétisme convient pareillement: le Nord-Ouest (*Lorient, Richelieu*) et l'Est central (Franche-Comté, avec ramification méridionale dans la Bresse et le Velay), si l'on considère l'abondance relative des versions de l'Est, leur qualité, la mention de la rivière de Saône (v. 17) et celle du roi d'Espagne (v. 8), on n'hésitera pas à situer en Franche-Comté le berceau de la chanson. Par le caractère de la langue, elle peut remonter au XVI<sup>e</sup> siècle.

Un chroniqueur du commencement du XV, Guillebert de Metz, renommait déjà comme une merveille de son temps les belles femmes des corps de métier parisiens. Un peu plus tard, qui ne se souvient de la belle Gantière, de la belle Hau-mière,

célébrées par François Villon? Et de la belle ferronnière de Florence, éternisée par le pinceau de Vinci? Lyon, au siècle suivant, eut en la personne de Louise Labbé sa belle Cordière. En fin, voilà quelque douze ans, la belle Meunière nous arrivait d'Auvergne. A toutes ces belles fameuses, avouées par l'histoire, un chansonnier populaire a donné une soeur, la belle Barbière. Celle-ci a-t-elle existé jamais, comme ces authentiques Parisiennes de Guillebert ou de Villon? L'on ne sait; mais en fin, dans ce monde de la fantaisie où vont, se donnant la main, fictions et réalités, elle n'apparaît pas moins vivante ni moins jolie que les autres.

Pour le fond, l'historiette contée à sa gloire n'est qu'une variation sur le thème du seigneur rebuté par une fille du peuple, qui veut rester fidèle à l'ami de son choix: thème d'ailleurs común à quelques vieilles pastourelles françaises. La gentilhomme donneur d'aubade et que l'amour fait changer de couleur, vatu le chevalier "pensif amoureuxment", que chevauche au matinet; et comme celui-ci perd sa peine apures de la bergère éprise de son bergereau, la barbière aussi, vainement requise d'amour, garde son coeur à quelque batelier de la Saône.

<sup>6</sup> Antonio Zavalaren ohoretan *Herri literaturaz gogoeta*, 2000 Deustuko Unibertsitatea, Bilbao, 88 or.

<sup>7</sup> Jon Juaristi, *Cambio de destino*, Seix Barral, 2006, 352 or. (...) destacaría el estudio de Biguri sobre las versiones europeas de la balada de la doncella guerrera y el de Jesús Antonio Cid sobre la derivación baladística, en el País Vasco, de la farsa carnavalesca paneuropea del viejo Hildebrand. En este último, Jesús Antonio sostenía que la mayor parte de los temas de la baladística vascofrancesa procedía de traducciones más o menos tardías y literales de baladas francesas llevadas a cabo -algunas veces con singular maestría- por una casta semi-profesional de juglares eusquéricos. Tal hipótesis no prejuzgaba si las baladas habían llegado a éstos por mediación de baladas en otra lengua, como el gascón, pero dejaba claro que se trataba de una tradición subordinada a la francesa, lo que por otra parte era bastante lógico.

<sup>8</sup> Bertso-paperetako bertsoasailtan askotan ematen den azken bertsoaren tankerakoa da. Azken bertsoan zenbatgarrena den aipatzen da, zenbat diru balio duen bertso-sailak eta abar.

<sup>9</sup> Sarrerakoari "prosimio". Halaxe ikasi nuen Carlos Garcia Gual-en lan polit batean, Alianza Editorialean agertua zen. Buruz ari naiz *El zorro y las uvas* uste dut zuela izenburua eta alegia horren moldapenak aztertzea zuen helburu nagusia.

## Atzamar bi falta zituen

Normalean aurpegi bertsuak ikusten ditu egunero. Harantz eta honantz dabilzan aurpegiak, beti nonbaitetik nonbaitera bidean. Baten bat, oso noizbehinka, bere parean edo aurrean geratzen da, eta begiratu egiten dio. Geratzen ez direnetako batzuek ere begiratzten diote, egia esan, lepoaren mugimendu arin batez-edo. Horrela ikasi du –urte batzuk kostatu zaion arren– pertsonen begiradetako ñabardurak bereizten eta sailkatzen.

Hasieran, dena hasi zenean, denak berdinak begitantzen zitzaizkion, ez zen gai begiradak ezberdintzeko, nahiz eta den-denak, salbuespen barik, mingarriak izan. Denborarekin, hala ere, detaileak igartzeko gaitasuna hartu du, begirada bakoitzari kolore bat antzemateko boterea, asmo ezkutu bat barruntatzeko. Horrela sortua du bere Katalogoa, katalogo zabala. Belztasun ilunetik zuririk zurienera doazen begiradak bilduta dauzka, tonu kromatiko guztietakoak: tonu beigeak asko dira, errukiz beterikoak, leunak: laranjak ere ez dira falta, aupada bat eman gurean-edo jaurtitzen diren begirada horienak. Urdinak, fuksiak, marroi berdexkak... kolore-sorta ugaria da, ugariegia agian, begiraden koloreak baino ez dauzkalako, berben itxura eta tonua inon agertzen ez delako. Burua mugituz bideratzen diren begirada arinak ia inoiz ez dira berba bihurtzen.

Urte asko dira bizitza Arkupetatik ikusten zuela eta salbuespenak ezkerreko eskua atzamarrekin zenbatu litzake. Eskuma-koekin ez, ze eskuman bi falta ditu eta horiek ez dira atzamar nahiko. Edozelan ere, salbuespen horietako bat sarritan errepi-katzen da. Astean birritan gertatzen zen, zehatzago esateko. Orduan Señora Hortensia joaten zaio-eta Arkupetara bisitan.

Señora Hortensia ez da bakarrik joaten, gainera, aldean beti eroaten du tortilla puska bat tuper batean, hau da, patata, arrautza eta kipulako artelana, eta Jacinto izeneko gizon bat. Heldu eta esaten dio, lehenengo “Manuel, gura duzu tortilla puska bat? Hartu ba, gizon, ez izan kokoloa” eta gero, bera aurreneko haginkada ematen dabilela “Manuel, kontatu dizut inoiz Jacinto eta biok Canariasera joan ginenekoa?”. Kontatu dio, bai, baina ez du axola, eta Manuelek adi entzuten du zelan uda izan arren hamar egunetan euria egin zuen, eta zelan egon ziren Jacinto eta Hortensia hondartzan euripean paseatzen, edota zelan ihes egin zuen Jacintok kuarteletik Hortensia artean “señora” ez zenean ikustearren. Manuelek ere kontatzen dio zerbait tortilla amaitzen duenean, gehienetan eskumako eskuko atzamar biak zer dela eta galdu zituen. Beti ez da berdin, zeren egun batzuetan esaten dio herriko jaietan bolandera bat eskuan lehertu egin

zitziola eta atzamarrak birrindu zizkiola eta beste egun batzuetan, berriz, gogoratzen da aita arotza zuela eta txikitan tailerrera sartu zela eta olgetan hasi zela erremintekin. Biak benetakoak iruditzen zaizkio, biak jazo ziren-eta, atzamarrak noiz galdu zituen oso ondo ez badaki ere.

Gaur goizean ere Manuelek Hortensia ikusi du plaza zeharkatuz, merkaturako bidea apurka-apurka eginez, gurpildun karrotxo laukiduna aldean daroala. Ordu erdi inguruan atzera ere pasatu da etxera bueltan, eta Manuelek hantxe jarraitzen zuen, non bestela. Baina Hortensia ez da atarian sartu, ezkerretara egin du eta Manuelengana hurreratu da, astiro. “Manuel, gura duzu tortilla puska bat? Hartu ba, gizon, ez izan kokoloa”. Manuelek hartu du tuperra, inoiz baino handiagoa begitandu zaio. Handiagoa da, duda barik, eta barruko tortilla ere bai. “Eta hau?”, “pentsatu dut biharko ere nahi izango zenuela, eta hau ere ekarri dizut” eta lukainka potolo eta luzea atera du karrotxo laukidunetik “egun batzuetarako eduki dezazun”. Orduan, buelta eman du eta etxera joateko keinua egin,

“nora zoaz Hortensia? Gaur ez da Jacinto etorriko, ala?” Antiojuen atzetik begiratu dio, eta Manuel konturatu da kristal lodien osteko begirada hori dela katalogotik gehien gustatzen zaiona. Berde apala da, trinkoa eta leuna. “Ez, gaur ez da etorri. Semeak esan dit Jacinto ere erresidentzian dagoela. Hantxe dago, Manuel, semeak esan dit. Bestela ez nintzen joango, ez pentsa”.

Iluntzean hotz egin du. Iparrak inetasi apurrak ere nahastu ditu euriarekin. Manuel ez da jantoki sozialera joan, arkupetako txokoan jesarri da, kartoiien gainean, eta bere mantarekin estali du gorputza, hotzetik babestearren. Hortensiaren tortilla osorik jan du, ase arte, eta labana hartuta lukainka xerra potoloetara bihurtu du. Gero, trago luze-luzea eman dio tetrabrikoko likido gorrixkari.

Inoizko begirada kolektiborik handiena izan du gaur, gaueko ordu batean, anbulantzien eta ert zaintzaren argipean bere gorpua errekatik atera dutenean. Ezin izan ditu, ostera, bere katalogoan sartu. Bazeuzkan eta.



## Euria...

Jeiki eta berriro ere euria zela igarri zuen, kanta aski ezaguna zuen hura, lantegi bateko beharginarentzat makinen zarata errepikakorra bezala. Eta zarata gor harek bezala Colleenek ere, ez zuen inolako emozio berezirik sentitu, ez horixe. Alperrik zen erremediorik gabeko gertaeren aurrean energia alperrik zaborraraztea. Irlandan zegoen, bai horixe, herritarrek etsipenez, euritik babesteari utzi dioten irlan.

Dutxa bero-bero bat hartzeko asmotan hankak tarras zuzendu zituen komunerrantz, dutxazpian sartu, eta azala berotasun gozo batez estali zitzaion. Izera epel haregaz batera, goitik behera busti zuen eguneko eginbeharren mamuak.

Goizeko zazpi eta erdiak ziren jada, gauak gero eta laburragoak zitzaizkion eta egunak berriz luzeegiak. Gelara itzuli eta pertsianak altxatzean azalean sentitu zuen giroaren hezetasuna. Bizkor, prakak eta alkandora ilunak jantzi eta ilea moño praktikoa batean batu zuen.

Atea poliki-poliki itxi zuen, pisukoak ez itxartzera behartzen zuen edukazio onaren kodeari jarraituz. Askotan kode hori bertan behera ixteko nahiak itotzen zuen Colleen, pisukideak bere lepotik txutxumutxuka eta


barrezka entzuten zituenean, bere janaria desagertarazten zuen haragizko ispirituak ohera baraurik joatera behartzen zituenean, edo mingarriena zena, pisukideek horma garden bihurtzen zituenean.

Kalean behera abiatu zen, jendartean desagertuz. Ezezagunak ziren aurpegi haiek, denborarekin ezagunak bihurtzen ari zitzaizkion. Aurpegiak baino, pertsona haien ile argi eta bekokiak. Neska eder batek begiradak erakartzeko duen boterearen pareko erakarpena sufritzen zutela baitzirudien hankapeko asfaltoarekiko. Zeren bila ote zeuden? Egindako ze pekatu naskagarririk bultzatzen zituen munduan zehar lotsaturik, burumakur ibiltzera?

Neonezko M itzelak goitik behera begiratu zion lantokia zuen MacDonalds hartara sartzean. Ez zen lehenengoa, ezta bakarra ere jokabide hartan, inguruan suertatzen zitzaion jendeak, bere hutsak estaltzearen agian, sarritan egiten baitzuen gauza bera. Ez baitzen Colleen bere benetako izena, sasi-izena zuen hura. Jatorrizko Txina utzi eta herrialde honetara etortzearen truke egunero ordaindu beharreko zor desatsegin mordoetako bat besterik ez zen hura; identitatearen desagertzea.

JON AREGO

Ruiz de Azua Zabalgogea, Andoni, *Ogoñope* (1904-1974)



Aipu eta omen handiko idazleen aldamenean badira euskal letretan bestelako batzuk, izen gitxiagokoak baina, edozein modutan be, garra handikoak eta sasoi baten, guztiz ezagunak eta euskal jen-teak estimaduak.

Horreen artean sartzen da bete-betean *Ogoñope* elantxobetarra, gerra aurrean eta gerra aldi euskal presan bere bidea egin ebana. Gerora be, erbeste-ra joanda, hainbat urtetan izan zan Mexikoko *Euzko Deyaren* orri euskaldunaren arduraduna. Berebat, han bertan *Ekin* aldizkari euskalduna eta *Editorial Vasca* sortu eta bultzatu zituan.

Euskaltzaletasuna txiki-txikitatik etorri jakon, abertzaletasunagaz batera. Euskararen defenza eta babesa eban harek helburu nagusia, euskara zalako euskal aberri baten hizkuntza berezkoa.

*Ogoñopek*, Andima Ibinagabeitiaren antzera, Sabino Aranaren ondorengo abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna hur-hurretik ezagutu zituan. Bide beretik esan daiteke giro horretan bizi zala herrian zein erbestean. Euskarazko kazetaritza lanak ugari baditu be, liburua argitaratu eban 1936. urtean *Ipuñak eta izkirimirijak* izenburupean. Gaiaren aldetik, umore da nagusi, Elantxobe eta inguruko herriak ardatz hartuta. Osterantzeko lanak be argitaratu zituan, antzerkigintzaren arloan.

Politikaren ikuspegitik, abertzale eragile eta arduradun izan zan Euskal Herrian zein Mexikoko erbestean, Euzko Alderdi Jeltzalearen barruan.

Aurrekoaren argigarri, betoz oraingo honetan *Idatz & Mintz* aldizkarira *Ogoñope* zanaren lantxo bi: bata, *Miren'en senargeya*, bere *Ipuñak eta izkirimirijak* liburutik hartua eta bestea, barriz, *Euzkadi* egunkaritik, 1936. urteko abuztuaren 21eko zenbakitik, hain zuzen be, ekarria. Batak umorea erakusten badau be, besteak hasi barri dan gerrako kezka astunak gogoratzen deuskuz, bi-biek luma eta esku bera dabela egile eta idazle.

## ***Mirenen senargeia***

*Ipuñak eta izkirimirijak*, 1936

*Tremoyako Miren eta Kurtziako Iñaki batun ziran Artiako San Poliparkoetan alkarregaz jantzan.*

*Miren Tremoyako emakume gaztea berak dauan sur handiak emoniko ezagupidea dala-ta, Miren sur-haundi deituten deutse Tremoya eta alboerri ezagun guztietan.*

*Ez daukazue entzuterik sur ederra daben emakumea gura dabena zuzendu dedila Tremoyara? Esakun hau ospetsu da ba.*

*Iñaki be, entzutea dogunetik Mirenegaz surrera enamora zan Artiako erromerian.*

*Kontua da ze, Iñaki eta Miren alkarregaz batuten diran bakotxean Iñakik ez deusala besterik esaten bere emaztegeiari bere surrari deusana kutuntasuna baino.*

*Baina Mireneri besten batek surragaitik zerbait esaten deusanean burlez hartuten dau eta benetan hasarratuten da. Iñakik esaten deusenean ostera irribarreka jarriten da.*

*Aldi baten alkartu ziran Miren eta Iñaki Santa Agedatan Natxituako enparantzan, eta alkar ikusi ebenerako esan eutsan Iñakik bere kutunari bere lagun guztien aurrean: Jaungoikoak bedeinkaturik zuk daukazu, Miren, sur ederra! Eta Mirenek eskerrik asko esanda, poz-pozik hartun eutsan bere senargeiak esan eutsana.*

*Erromeria amaituta bakotxa bere etxerantz joiazala Iñaki ez zan beste Iñakiren lagun batek zerbait esan eutsan Mireneri bere surraren goralmena egin guran. Miren hasarratu egin zan, eta hasarrez esan eutsan honeri: Hi... txotxo, nik neure surra maite dauana badaukat bai... eta heure amamari egiok burla.*

*Tremoyatik Kurtzea urruntxu egon be, eta Miren eta Iñaki luzaroan alkar ikusi barik egoten ziran.*

*Jolasa non hantxe alkartuko ziran, baina behin udea igarota neguan noizik noizera baino ezin alkar ikusi izaten eben.*

*Oraitxeno aratusteak ganean ziran eta Elantxobera joateko amesa heldu jaken.*

*Baina Elantxobera bata alde batetik eta bestea bestetik bakoxta bere lagunakaz bertara joan behar ebelez, bertan zelan alkartu idazkiz konpondu ziran.*

*Halantxe urten eben Tremoyatik bazkalduta batera Mirenek eta bere lagunak. Iñaki be, bere lagunakaz, beste aldetik joian.*

*Behin Elantxobera helduta Iñakiri marrau jantziteko gogoa heldu jakon, eta Mirenek ezertxu be ez ekiala sur haundidun maskara barregarri bat erosi ondoren, baserritar jantzi zan, eta berehalaxe plazaratu zan. (Iñakiren maskareak bere emaztegeiak eban surraren antzekoa zan). Plazaratuta batera zuzendu zan Mirenegana eta mirri-mirri marrau abotsagaz Iñakik bere emaztegeiari ulea hartun gurean ekin eutsan:*

*—Hori da emakume surraren ederra...!*

*Iñaki marrau jantzita ezagututen gaitz egon be ta Mirenek ez eban ezagutu, eta hasarrez kartozko surretik oratuta maskara haren surra apurtu eban.*

*Iñaki surra apurtuta guzti be, olgetan jarraitu eban, eta Miren sur aundi ostera Iñaki nondik ikusiko bere burua galdu beharrean ebulan.*

*Iñaki guztiz hasarratu zan Elantxobeko aratuste egunean, eta Tremoyako emakume sur ederduna ostera bere surrari aurrerantz goralmenik nok jaurti ez dauala, Iñakiren kalabazak hartun ondoren itun be geratu zan.*

*Mirenen sur ederra  
gozozkoa izan bazan  
Aratustez Elantxoben  
nok erosi egongo zan.*

## **Elantxobeko arrantzaleen jazokuna**

*Euzkadi, 1936-VIII-21*

*Astare hamazortzi garrengo arratsaldeko ordu batak aldean jazokun ilunak izan ebezan Elantxobeko arrantzale bulartsuak euren arrantzatu lanetan egozan artean. Eurakaz batera izan ziran beste bermeotar arrantzale batzuk.*

*Jazokun honen barri egunotan azaldu dabez izparringiak, baina ez dira agertu behar eben zehaztasunagaz, barri horretan errakuntza batzuk aurkitu doguz, beraz egunotan barri honen atzetik ibili garanok ahalegindu gara zehaztasun pizkat aurkituten.*

*Igaziko astare goizean itxasoratuta egozan Elantxobeko itxasontziak hegaluze edo atunetako lanetan. Ordu batak aldean Matxitxakotik hamalau edo hamabost milla N.N.O.-ra egozala ikusi eben urruneko aldean euraganuntz etorrela guda-izontzi handi bat, laster jausi ziran kontuan guda-izontzi hori Almirante Cervera eritxon itxas-lapurra zala. Igeska hasi ziran baina igesaldi haren aldia laburra be laburra izan behar eban. Laster hasi jaken itxas guda-izontzi lapurra tanbadaka bere kanoi bategaz. Geure arrantzaleak ikaratu ziran, eta Almirante Cervera hurreratuten etorran guda-izontzi honen ibilerea arina izan be ta.*

*Behin honen ondoan hasi jaken honeri agindu garratzak emoten. Elantxobeko arrantzale izontzi-noak hiru ziran beste batzuk bermeotarrak.*

*Elantxobekoak Bermokiz, Divina Pastora eta Nikola Deuna. Nikola Deuna-ko lemazain edo patroia Goyoganatar Moises gazteari guda-izontzira igoteko agindu eutsan lapur guda-izontziko nagusiak, baita beste bermeotar patroari, eta gure arrantzale bulartsuak apal-apalik guda-izontziratuta izan behar eben iluntasun handiengan.*

*Honegaz ez ziran kontuz geratu espainiar erailtzale zitalak eta gure hiru izontzinoari beste gauza*



gorrotogarri batzuk egin eutsezan lotsabako abere horreek.

Nikola Deuna eta Bermokiz izontziari makinako zati bana kendu eutsezan zelan ibili ez eta itxitearren, eskerrak Divina Pastora-ren makineari bakean itxi eutsena, ontzi honek atzetik lotuta porturatu behar izan ebazan bere lagun izontzino biak.

Geure arrantzaleak bederatzi edo hamar kintal hegaluze (atun) harrapata euki ebezan Almirante Cervera-k goratu eutsen aldian, baina honek itxasora jaurtiteko agindu eutsen eta ixil-ixilik euren arrantzu guztia itxasora jaurti beharra izan eben. Ez ziran honegaz be kontuz geratu eta barruan ebezan aparaju eta arrantza tresna guztiak kendu eutsezan.

Basatikeria guztiok egin arren be, ez ginakez hasarre izango geure bigarren endorea dogun Goyoganatar Moiseseri bakean itxi baleutse, baina eurakaz eroan eben eta ez dakigu gaur zein dan berak izango dauan zoria.

Amaitzeko eta argi ipinteko, Elantxobeko arrantzale izontzinoak hiru izan zirala. Honen ize-nak, Nikola Deuna, Bermokiz eta Divina Pastora-k

dirala. Nikola Deuna-ri gizon bat eroan eutsela, gizon hori ontzi honen jaube, lemazain eta herriko bigarren endorea dala. Beronen izena Goyoganatar Moises hogeta bederatzi urteko ezkongei aber-tzale jatorra dala.

Beste ontzi bietako patroari bakean itxi eutsela, baina zakinako pieza bat kenduta beste hirugarren ontziak portura ekarri behar izan ebazala. Barruan eben arrantzu guztia itxasora jaurti behar izan ebe-la, eta euren arrantza tresna guztiakaz bardin egin behar izan ebela.

Honeexek dira arrantzale horreen artetik hartun doguzan barri ziurrenak, barri honek tamalki ipin-ten gaitu, baina ez itxaropenik galtzeko neurrian. Arrantzaleak ordu honetan daben zoritxar guztia laster ordaindu beharra izango da, zelan-halan euratzaz zerbait egin beharra izango dogu. Gobernuak beste guztientzat laguntzea badau izan daite-zala arrantzaleak danaren urretik, euren lanak, galtzeak eta ahaleginak, danen onerako izan diran arren.

Artean itxaropena eta jasatasuna.



**Ubarak zure begietan**<sup>1</sup>. Bilbon, 2006ko otsailaren 22an.

Arratsalde on eta eskerrik asko hona etorri zarien guztioi, etxeko eta lagun, Labayru Ikastegiko kide, Elkar liburudendako langile, arratsalde on eta eskerrik asko danoi eta bakotxari.

Hemen nago barriro be, argitaratu barri dan nire ipuin liburua zuei aurkeztu, irakurleei, oro har, aurkeztu. Eta barriro be, dinot, orain hamalau urte hementxe bertan egon nintzalako, gauza bera egiten, artean beste izen bat eukan liburudenda honetan bertan, nahiz eta, izen aldaketa barri samarra danez, oraindino be, sarritan, lehengo izenaz izendatzen dogun.

Gaur nigaz zagozien batzuk orduko haretan be egon zinien, *Argilunak begietan* izenburuko nire lehen liburuaren aurkezpenean. Badira izan urteak, bai, hamalau, baina hementxe gagoz barriro be, zeozer eta nogaz ospatzeak eta alkar ikusteak dakarren poztasunaz eta zorionaz; holan da neure aldetik, zeuenetik be holantxe izatea gurako neuke.

Tarte honetan hainbat gauza jazo eta suertatu dira. Idazletzari jagokonez, ipuinak edo narrazio laburrak (bietara deitzen jake-eta) idatzi ditut, eurotariko batzuk gero literatur aldizkarietan edo beste idazle batzuek batera idatzitako liburuetan argitaratu diranak, bateren batzuk literatur sariketetara joan-eta-bardin-etorriko bidea egin dabenak; izan da aitamenen bat eta itzulpen lanen bat be tarteko. Hau guztia neure ermittora, neure idazle ermittora idatzita, astiro eta epeka esango neuke nik. Iraupen-korrikalaria naz, ez naz ni ehun metroko korrikalaria.

Eta egon egon dira isilaldiak be, ezer idatzi bako isilaldiak. Aldiotan neure dudak eta zalantzak izan ditut, galdera honek sor-

tutako zalantzak batez be: idazlea ete naz gero? Azken baten, zer da idazle izatea: egunero, astero, hilabetero, zerbait idaztea? Norberak idatzitakoa lagun bati emotea irakurri dagian, haren onspena edo kritika jasotzeko gero? Idatzi, idatzi bai, baina argitaratu ez? Idatzi eta argitaratu, biak batera? Litekeena da irakurle bako idazlerik? Galderak, larregi, ikusten dozuenez, erantzunak, urri.

Holako zalantzaldi baten, orain pare bat urte eskas (gehiago be ezin dot zehaztu, hamalau urteok ez dira-eta alperrik igaro nire memoriatik), Guggenheim museoa izan nintzan, Oteizari eskeinutako erakusketa ikusten eta gozatzen. Bere eskultura lanetaz aparte, idatziz eta berbaz be oparota izan zan Oteiza, eta hainbat idatzi egozan erakusketan. Horrelako baten hauxe inoan, gitxi gorabehera: artistarik oparoena be, ez dago beti sortzen eta sortzen, badituela izan bere isiluneak eta geldialdiak be. Esaldi horrek kontsolatu eta animatu egin ninduan. Oteiza lako artista batek hori bainoan, zer esatekorik neukan ba neuk?

Eta hatan horretan, heldu jatan tarteka idatzitako ipuinok (eurotariko batzuk orduko han edo hemen argitaratutakoak) batu, bata bestearen ondoan jarri eta liburu bat osatu eikiela pentsatu nebaneko unea. Zergaitik ez? Holan ba, eta udak emoten dauan patxadaz, hartu eta Labayruko Igone Etxebarriari (gaur egun beste zeregin batzuetan baina, gaur, hemen, nigaz dagoana) bialdu neutsazan. Honen erantzuna laster etorri jatan bueltan, baietz, beharrezko ziran bateraketa eta orrazketa batzuk egin eta gero, argitaratzeko modukoak zira. Normalean oportetarako izaten dan sasoi, ekinerako sasoi izan zan, baina ez dago gustora egiten dan ekina lakorik.

Zeuen aurrean daukazue orain ekinarren frutua, hamabi ipuin *Ubarak zure begietan* izenburupean batuta, alkarren konpanion. Gehien kostatu jatana, liburuari izenburu egokia jartzea, horixe izan zan gatxena azkenean (eta ez pentsau horregaz ipuinok bere sasoi an idaztea erraz-erraza izan jatanik!). Ipuinoi euroi, euren sasoi an, eta liburuari orain, izenburua jarri aurretik hainbat buelta emoten deustadaz buruan-eta. Izenburu polita, egokia, ipuinaren edo

liburuaren aurkezpen eta laburpen duina izango dana, hori lortzea ez jat bape simplea eta erraza suertatzen. Oraindino gehiago, ipuin solteak diranean eta ez sortzez liburu bat osotuko daben ipuinen kasuan.

Bateren bati entzunda daukotsat (eta nori, horixe bai ez dakidala) berak izenburua pentsa eta idatzita daukalarik, hortik tiraka laster jatorikola ipuina. Zenbat pertsona eta idazle hainbat prozesu.


Ipuinotan bizi diran pertsoniak, hara eta hona dabilzan pertsoniak dira, hara eta hona horrek ez daukalako, niretzat behintzat, zentzu fisikoak bakarrik, leku bereango bilakaera be izan daitekeelako. Itxi, lorratz batzuk be ixten dabez, itsasoan baporak ixten dauazan uhara, ubera, kerizpe edo itzal lakoak, indartsuak eta apartsuak batetik, lurruntuak eta igeskorrak aldi berean. Euren begiek, bestearen begiek, zeuonak, ikusten dabezan uharak. Ezin deustuet gehiagorik esan. Honetan be, beste baten esaldia jator burura-eta. Arantxa Urretabizkaia idazleak dinoenez, bere literatur lanari eta idazletzari buruz galdezka joakozanean, hauxe erantzuten deustis berak: ni txoria naz eta ez omitologoa.


Beraz, hortxe dago, hemen daukazue *Ubarak zure begietan* liburua, neure eskuetatik aske eta libre honezkerok, bere ibilbide autonomoa egin dagian. Hori bai, bere ibilbidean, zuok, irakurleok, bidelagun izan zakioezala gurako neuke, zeuon onspena, kritika eta balorazioa izan dagizala.

Orain hamalau urte ez neban pentsau be egingo barriro hemen egongo nintzanik hainbat urtegarrenera. Baina hementxe nago, hementxe zagoze zuok be. Gerora? Gerora ez dakit, ez dago dana neure eskue-tan-eta, idaztea beste norbaitek emondako dohaina be badalako. Dana dala, geroak ustekabeak ekarri deiguzala, ustekabe onak eta ederrak, hori bai.

Lourdes Unzueta Zamalloa

<sup>1</sup> Bilbon, 2006ko otsailaren 22an, *Ubarak zure begietan* liburuaren aurkezpenean egileak esandako hitzak.





## Gela bat, bi iritzi, hiru poema<sup>1</sup>

### Gela bat

Esan bakoa da, gaur hona ekarri gaituen poeta gauza txikien zalea zena, hau da: goizaren handian argi txikia, itsasoaren zabalean zurrumurru neurtua eta baso-oihanetako zuhaitzen artean elorri bihurritxikia hautatu ohi zuela. Eta Arantzazuko arkitektura zoragarrian, zer nabarmenduko, eta fraideen gela txikiaren handitasunari erreparatuko dio:

“Beti arritu nau prailleen gelako ikuskizunak: oge trakets bat, mai ximple bat, jantzi-kutxa mengel bat, eskolarako ta sermoitarako liburu batzuek, eta orma zuriak. Eta orma gorrietan, argira, leio bat. Eta zer edertasuna! Zer zoramena angoa! Zer geiagoren bearez! Zer praillearen atsegiña! Zertarako ezer geiago? Ta ez nabil txantxetan. Ez naiz parrez ari. Zorionaren aurrean bainago.”<sup>2</sup>

### Bi iritzi

Badakigu, gela frantziskotar xume horretan Bitoriano Gandiagak literatur lan ugari argitaratzeke utzi zituena, gehienak poemak, bilduma eder honetan ikus dezakegunez. XX. mendeko euskal poesia sakon

aztertu duen Koldo Izagirrek honako hau zioskun mendatarrari buruz:

“Asko idatzi zuen arren, originaltasuna inoiz galdu gabe egin zuen lan Arantzazuko poetak, autoexigentzia handiko autoreak sinatzen ditu liburu-rako poemak zein liturgiarako kantuak edo gabon koplak. (...) Asmatua egon izan ez balitz, berak sortuko zukeen poesia.”<sup>3</sup>

Esan dezagun, era berean, bildumako lau liburuen artean, badagoela bat *izadiminez* idatzita dagoena; Orbelaunen jaio, Arantzazun bizi eta Artason bere burua lurrez bataiatu zuena estu ere estu lotuta baitzegoen naturari. Bada, izadiak, naturaz, dihardu Felipe Juaristik hurrengo hitzotan:

“Gandiaga lehendabiziko aldiz ikaraz hurbildu zitzaion Naturari, harrimenez egin zion so hari. Berehala ordea bat egin zen harekin, eta Naturaren ezaugarriak, haren usain, kolore, dardara, hitz batez dena, bere baitan gorde zuen. Azkenik Naturaren begiez egiten zion so munduari. Naturaren.”<sup>4</sup>

### Hiru poema

Sar gaitetzen, bada, izadian, *Izadiminez* liburuan; eta entzun diezaiogun haizea musikarekin parekatzen zuen poeta haundiari:

1. Naturaren poetikaz  
*Haizearen laguna naiz.*  
*Horregatik dut idazten*  
*kanta daitekeen moduan.*  
*Haizearen ta*  
*itsasoaren laguna,*  
*zurrumurrua dut maite.*  
*Ibarduna eta etena,*  
*etena eta ibarduna,*  
*haizeak bala dibardu,*  
*itsasoak ere bala,*  
*olatuén erritmoan,*  
*dio bere erezia.* (98. or.)

2. Lurtasunaz  
*Oinuksik eta lurrean,*  
*norbera lurrean eta oinuksik,*  
*biluzik eta lurrean,*  
*mabats-ondoak bezala,*  
*elurra ari denean.*  
*Lurra nabi dut maitatu,*  
*lurraren alde nekatu,*  
*oinak lurrean zukutu,*  
*lurraren onurak nazan*  
*lurreko gizon biburtu.* (109. or.)

3. Zuhaitzen mintzoaz  
*Zubaitzek dizkidate*  
*ipuinak kontatzen*  
*baizeari entzunak:*  
*zenbait argiak, leunak,*  
*zenbait, latzak, ilunak,*  
*zenbait gertuko*  
*zenbait urrunak.* (155. or.)

Eskerrik asko.


*Iñaki Sarriugarte Irigoien*

<sup>1</sup> Donostiako Koldo Mitxelena liburutegian (2005-12-05), Bitoriano Gandiagaren *Poema Argitaragabeak* (*Biziminez, Euskalminetz, Izadiminez, Jainkominetz*), bildumaren aurkezpenean esaniko hitzak.

<sup>2</sup> “eta illargiaren jabe”, *Aránzazu*, XLV, 1966, 100. or.

<sup>3</sup> Izagirre, Koldo: *Bitoriano Gandiaga*, XX. mendeko poesia kaiarak, Susa, Zarautz, 2001, 8. or.

<sup>4</sup> Juaristi, Felipe: “Naturaren begiez munduari so”, *DV*, 2001-02-22, 16. or.



**ALBERTO LADRÓN ARANA. *Arotzaren eskuak*.** 2006, 248 or.

*Suspensea amaieraraino*

Egia esan behar badot, harrituta itxi nau "suspensezko thriller" honek; harrituta, hasi eta amaitu egin behar izan dodalako, parau barik, hain estu katigitu nau istorioak. Autoreak berak aldizkari baten egineko alkarriketan inoanez, genero honetako liburuak ez dira sano ugariak euskeraz, baina liburuak saldu saltzen dira, eta hori adierazgarria da.

Funtsean, hauxe da liburuaren gaia: Ane Duhalderen aitita hil barri da, eta bilobari itxi deusaz lur-arlo batzuk eta baserri zahar bat. Anek, hara doanean, aurkituntza lazgarria egiten dau: gorpu bat, Europako beste hilketa batzukaz zerikusi argia daukana. Bortoleko polizia erretiratu batek lagunduko deutso Aneri misterioa argitzen.

Berehun eta piku orritan, suspensea eta ezustekoak lagun eukiko dauz irakurleak, eta tonu horri amaieraraino eusten deutso. Idazleak ondo baino hobeto engaitetan dau irakurlea, lehenengo bide batetik eroaten dau eta gero bestetik. Idazleak gauza bat pentsetan bultzatzen gaitu, gero pentsamendu hori hankaz gora ipinteko.

Espazioari jagokonez, istorioa Euskal Herrian eta Frantzia kokatuta dago. Donostia, Iruñea, Nafarroako mendialdea,

Metz, Alemaniako muga, Paris... dira istorioaren kokaleku. Eta denborari heldu ezker, istorioak aurrera eta atzera salto egiten dau behin eta barrero. Izan be, gaur egunean kokatu arren, 2. Mundu Gerrako eta laurogeiko hamarkadako jazoerak behar-beharrezkoak jakuz istorioa behar dan moduan aitzeko.

Irakurlea bildurtu ez daiten, aurrezidik esan behar dot datu historikoak aitatzen direan arren, ez direala sano ugariak, eta irakurlea inondik be ez dala galduko. Ezinbesteko datuak baino ez dira emoten, ez da historiaren gaineko irakasgaia, istorioa ulertzeko lagungarria baino.

Amaitzeko esan behar dot Alberto Ladrón Arana ez dala sano ezaguna gure artean. Berari be noz edo noz irakurri deustat pena emoten deutsala irakurle askorengana ez ailegeteak. Honakoa laugarren liburu da, eta bere nobelak ahoz aho gomendatuta irakurtzen ei dira. Ia, ba, nire iruzkintxo honek be zabalkunde lan horretan laguntzen dauan.

*Arantza Etxebarria Ilurrate*

**JON ARRETXE. *Kleopatra*.** Elkar, 2005.

Oin dala urte bi hasitako sailari barrero eutsi deutso Jon Arretxe idazle basauritarrak bere aurtengo liburu edo entrega barrian. Orduan, Gasteizko putetxerik kutreana dan Manilaren inguruan ondu eban umorerik ganberroena eta irreberentea jorratzen eban hala-moduzko elebarri baltza. Ha *Manila konexioa* izan zan. Horretarako inon dan detektibe parerik eskasena eta kalamidadeena asmau eban Arretxek: Simon Artabe eta bere laguntzailea Etxebe. Horreek ezagututa berehala jatorku gogora Espainia aldean zineak ospetsu egin dauan antzeko detektibe, ha be errege elementurik *kitsch*-enen esajerazinoan. Bistan da, bizi dogun sasoiak arrakastaz janzen ditu halango personaia, antipersonaia baino ez diranak, errez merkaturatzen dan anti-genero batekoak. Artabek eta Etxebek ez deutse ihes egiten Torrentegaz alderatzeko tentazinoari; zer egingo deutsagu bada, ha be, zoritxarrez, geure eredu bilakatu jaku. Baina, tira, torrentekeriak alde batera itxita, seguru egileak eredu hartu dauana benetako dan bateren bat, edo beharbada batzuk. Halango gauza irreberenteek emoten dabe horretarako bidea, baita mendeku txikiak gauzatzeko. Oraingo honetan, *Kleopatra* liburuan, Artabe eta Etxeberen abenturak eta kalenturak Basauri aldera joan dira, nora eta egilearen beraren herrira. Bertan Mandeuli Urdina aurkitu behar dabe, zer dan jakin gabe. Liburu mota honeetan ohikoak diran ustekabe zoroek bertako Kleopatra izeneko putetxe kalamastrara eroango dabez. Bertan, eta inguruko auzoetako baselizetan aurkituko dabez lorratzak Mandeuli Urdinera heltzeko. Komikiaren kontatera arina gogorazoten dauan honetan barrero nagusi dira personaia xebebreak, egoera irriarriak eta bazterrik kutreanak, kasu honetan Basauri moduko herri batek iradokitzen deustazanak. Basaurikoa be nazan honeri grazia egiten deutso bere herria horrela irudikatuta ikusteak. Baina, horrek badakar arazoa herria ondo ezagutzen dauanarentzat. Izan be, egileak egiten dituan denpora anakroniek eta bestelako esajerazinoek zailtzen dabe fikzinoak euki behar dauan egiantzekotasuna, irrealagoa

egiten dabe, eta demaseko irrealidadea ez da zutabe ona baltza izan nahi dauan elebarri batentzat. Dana dala, ez dot uste hori oztopoa danik besterik gabe ondo pasau nahi dauan irakurlearentzat, horixe dalako liburu honek eskatzen dauan irakurlea, gehiagorako barik. Edozein modutan, lerro barregarriko ezin dabe ostendu Arretxe narratzaile aparta dala, serio parau ezker, onenetakoa izan leiteke. Oraindik hirugarren bat irakurri beharko dogu jakiteko zergaitik Artaberi *Kiriki* deitzen deuten?

*Alvaro Rabelli*

